

Anjel Lertxundi idazlea Bediako Irakurle Klubean hilaren 28an, 19:00etan

12. orrialdea

Hiru ibilbide Zeanuriko ermitak ikusteko hilaren 11n

11n izango da Zeanuriko Ermiten XXIV. Mendi Martxea, Joko Alaik antolatuta. Hiru ibilbide dagoz aukeran: luzea 35 kilometrokoa, ertaina 23 kilometrokoa eta laburra 13 kilometrokoa. Luzea egiten dabenak 19 ermita edo eleiza ondotik pasauko dira. Urteerea 07:30ean izango da Zeanuriko Ibarreta frontoian. **12. orrialdea**



Itziar Zabala Europa eta munduko txapelketetan egon da

10. orrialdea

TOKIKOM

begitu
arratia ubide zeberio

148

2011ko urri lehenengoaren 1a hamabostekaria
www.begitu.org

Arratia nesken futbol taldea egonkortzen

Mobimentu txiki bat somatuten da Arratia futbol taldean. Izan be, orain dala urte bitik hona, ume eta kimu taldeak sortu dira neska taldearen isolamentu historikoa apurtzeko.

Oraindino falta da edade guztietako Arratiako neska futbolearen jokatu izateko, baina talde bi honeek bidea egiten hasi dira. "Urte pilo baten gure taldea bakarrik egon da eta orain talde bi honek sortu dira. Horrek adierazoten dau zeozer doala gorantz" dino Irune Caballero Arratiako nagusien taldeko jokalariek.

Nagusiak hamaikagarren denboraldiari ekiteko prest dagoz. Aldaketak egongo dira taldean: batzuk joango dira eta beste batzuk etorri. Igaz baino zorte hobea eukitea lesinoakaz espero dabe eta denboraldia taulako lehenengo postuetan amaitutea.

Talde sortu barriak emoitza onak lortu dabez. Pasa dan denboraldian haurrak Kopa irabazi eben eta kimuak Uria Memoriala.

Kantereak taldea egonkortzen lagunduko dauala uste dabe jokalariek, isolatuta eta jokari faltan beti desagertzeko arriskuan ez egoteko. Neskentzat ez da nahikoa eta, futbolari onak izatea futbolearen jokatu ahal izateko. Horren adibide da Arratia futbol taldearen historia bera. 1969an Arratia C.D. Soberano, neska taldea sortu zan eta bere historia osoan partidu bakarra galdu arren, urtegarrenean desagertu zan entrenatzaile-rik ez eukalako. **8. eta 9. orrialdeak**



Arratia futbol taldeko haurrak.

ARRATIA

Azkenengo txupinak botatzear dagoz

Uda amaitzear dago baina jaiak luzatuko dira urrietan zehar. Urri lehenengoa San Antolin jaiak hasten da. Jai honek Zeberion, Lemoako San Antolin ermitan eta Dimako Oban ospatuten dira. Hilaren 8an, Andra Mari jaiak, Artean eta Lemoako Elizondon. Sanmigelak emoten deusie amaieraa hileari eta honek Igorreko Garbe auzunean, Zeanuriko Uriben eta Altzutan eta Arteako San Migel ermitan ospatuten dira. Dimako Indusi auzunean San Fresku jaiak ospatuten dira. San Fresku urri bigarrenaren 4an da, baina Indusikoak txupina hilaren 30ean botatz emongo deutsee hasieraa auzoko jaiak.

Ganera urri lehenengoaren 17an MerkArtearen XVIII. edizioa izango da. **5. eta 6. orrialdeak**

IGORRE

Lip Dub-a INBIU Euskera Egunean

Igorreko Euskera Planak 9. INBIU jaialdia ospatuko dau hilaren 24an; Lip Dub bat grabauz emongo jako hasieraa jaialdiari. Grabazioaren ostean, pintxo jana, herri bazkaria eta erromeria JOKALDI taldeagaz. Jai amaituteko, txokolatea eta bizkotxoak.

Igorreko Merkatarien Elkartean laguntzea izan dau Igorreko Udalak, euskerearen jai hau antolatuteko. **5. orrialdea**



ARRATIA

BEGITU kamisetea barriz eskuragarri

Zabalik da barriz BEGITUREN kamisetea eskatzeko epea. Begitu-lagunentzako dan kamiseta hau eskuratzeko, eskatu egin behar da neurria esanda. Begitu-lagun asko geratu ziran aurrekoan kamiseta barik, eskatu ez ebelako eta Zertu Kultur Elkartean urri lehenengoaren 30a arte, barriro epea zabaltzea ebatzi dau lehen eskatu ez eben begitu-lagunak eskatu daien. **7. orrialdea**

E.P.A.
Galdakao
www.epagaldakao.com
Matrikuletako epea, iraila osoa.
Tlf. 94 456 60 98
Helduen heziketa
E.P.A.
IGORRE: Elejalde 22. Eleizako lokaletan

KANTU HERRIKOIAK

MIRU ZURIA

Aramotzetik Garamendira
tximista baten antzian
miru zuria igeratziok
oilandatsuen atzian.

Atso urdinek entzuten baitu
haren txistuak etxean
kurra ta kurra solora doia
oilandatsuen atzean.

Atso gaixua hasarraturik
negarrez dino bidean
txite guztiak eroan deustez
bata bestian atzean.

Miru zuriak erpia zorrotz
pikua zerbait makurra
errotiaez urunduten dau
oilandatsuen hazurrak.

Miru gaiztoa igeska doia
Belamendi atxetara
jan dabenian oilandatsuen
hazur da mamin guztiak.

MORALEJA!

Kontuz ibili neskatil gazte
gaurko mutil kirtenakin
egunen baten arrapau saisten
beren erpe zorrotzakin.

Kantuaren egilea, antza danez: Dionisio Bera-
saluze Iza "Moret" (Igorre 1910-1962).

Igorreko Lontzi Aizpuruk, Gontzal Mendibileri,
idatziz emondako bersinoa.

Miru zuria

A-ra-mo-tze-tik Ga-ra-men-di-ra txi-mis-ta ba-ten an-tze-
an, mi-ru zu-ri-ak i-ga-ro-ten deu oi-lan-da-tsu-en a-tze-
an. A-tso ur-di-nek en-tzu-ten bai-tu ha-ren txis-tu-ek e-txe-
an, ku-rra ta ku-rra so-lo-ra do-ia be-re oi-lo-en a-tze-an.

Oharra: Doinu eta bertso hau Igorren batutako beste bertso batenak dira.

TELEFONO INTERESGARRIAK

Larrialdiak

Galdakaoko Ospitalea 94 400 70 00
S.O.S. DEIAK 112

Guardiako Farmaziak**Abuztua. 29tik urri lehenengoaren 4ra**

Vargas. Lemoa. Atutxa Sailburua 1
Tel.: 696 782 189

Urri lehenengoaren 5etik 11ra

Goikoetxea. Dima. Ugarana 33
Tel.: 94 673 70 54

Urri lehenengoaren 12tik 18ra

Ibarrola. Zeanuri. Arregia kalea 1
Tel.: 94 673 93 95 eta 609 402 908

Urri lehenengoaren 19tik 25era

Badiola. Artea. Herriko Plaza 7
Tel.: 94 631 73 11

Uri lehen. 26tik urri bi. 2ra

Ibarrola. Zeanuri. Arregia kalea 1
Tel.: 94 673 93 95 eta 609 402 908
Zeberioako ez dau guardiarik egiten.

Medikuak

Arantzazu: 94 631 56 89

Artea: 94 673 92 11

Areatza: 94 631 71 52

Bedia: 94 631 34 13

Dima: 94 631 56 30

Igorre: 94 600 74 63

Lemoa: 94 631 31 16

Ubide: 945 45 03 61

Zeanuri: 94 673 91 49

Zeberio: 94 648 20 79

Udaletxeak

Arantzazu: 94 631 56 89

Artea: 94 673 92 05

Areatza: 94 673 90 10

Bedia: 94 631 42 00

Dima: 94 631 57 25

Igorre: 94 631 53 84

Lemoa: 94 631 30 05

Ubide: 945 45 03 22

Zeanuri: 94 673 91 46

Zeberio: 94 648 10 79

Udalen Mankomunitatea

94 631 17 17 / Faxe 94 631 92 15

Gorbeialde

94 631 55 25 / Faxe 94 631 71 01

Parketxea

94 673 92 79

Igorreko Kultur Etxea

94 673 62 51

Gorbeialde Irratia

94 631 52 90

Trenak

Euskotren 902 543 210

Bizkaibus* 902 222 265**Zeanuri-Lemoa-Ospitalea-Bilbo**

Lanegunetan: Lehenengo 05:00etan.

Ordu erdiro: 05:15etik 06:45era.

Orduro: 06:45etik 21:45era. Azken zerbitzua
22:00etan.

Zapatuetan: Lehenengo 05:00etan.

Orduro: 05:45etik 21:45era.

Jaiegunetan: 07:45etik 21:45era orduro.

Bilbo-Ospitalea-Lemoa-Zeanuri

Lanegun eta zapatuetan: 06:15etik 22:15era
orduro.

Jaiegunetan orduro 07:15etik 22:15era.

Durango-Lemoa-Ospitalea-Bilbo

Lanegun eta zapatuetan: 06:30etik 22:30etara

30 minuturo, azkenengo 22:15ean

Galdakaoraino.

Jaiegunetan: 07:00etatik 22:00etara 30

minuturo, azkenengo zerbitzua 22:45ean

Galdakaoraino.

Bilbo-Ospitalea-Lemoa-Durango

Lanegun eta zapatuetan 06:30etik 22:30era

30 minuturo.

Jaiegunetan 07:00etatik 22:30era 30 minuturo.

Ubide-Otxandio-Lemoa-Bilbo

Ubidetik urteerak, lanegun eta zapatuetan:

06:45etik 20:45era bi ordurik behin.

Jaiegunetan: 08:45etik 20:45era bi ordurik
behin.

Otxandiotik urteerak:

Lanegun eta zapatuetan: 06:55etik 20:55era
orduro.

Jaiegunetan: 08:55etik 20:55era orduro.

Bilbo-Lemoa-Otxandio-Ubide

Lanegun, zapatu eta jaiegunetan,

Otxandiora: 06:45etik 20:45era orduro.

Ubidera: 06:45etik 20:45era bi ordurik behin.

Zeanuri-Lemoa-Bilbo (Autopistatik)

Lanegunetan: 07:00etan lehena, eta 08:15etik

21:15era orduro.

Zapatu eta jaiegunetan ez dago zerbitzurik.

Bilbo-Lemoa-Zeanuri (Autopistatik)

Lanegunetan: 07:00etatik 21:00etara orduro.

Zapatu eta jaiegunetan ez dago

zerbitzurik.

Artea-Bilbo

Lanegun eta zapatuetan: 07:00, 15:30 eta

20:00.

Domeketan ez dago zerbitzurik.

Bilbo-Artea

Lanegunetan: 05:45, 14:15 eta 18:45.

Zapatuetan ez dago 05:45ekoa.

Domeketan ez dago zerbitzurik.

Zeberio-Bilbo

Lanegun eta zapatuetan: 09:15, 11:15, 13:15
eta 17:45.

Jaiegunetan (Arrigorriagaraino): 08:15, 11:15,
14:15, 17:15 eta 20:15.

Bilbo-Zeberio

Lanegun eta zapatuetan: 08:15, 10:15, 12:15
eta 16:45ean.

Jaiegunetan (Arrigorriagatik): 10:40, 13:40,
16:40 eta 19:40ean.

La Union* 94 427 11 11**Bilbo-Gasteiz**

Lanegunetan: Ubidekoak 09:15ean urtetan
dau eta Otxandiokoak 16:00etan.

Zapatuetan: Ubidekoak 09:00etan eta

16:30ean urtetan dau Bilbotik.

Jaiegunetan: Ubidekoak 10:00etan urtetan dau

eta Otxandiokoak 18:30ean.

Gasteiz-Bilbo

Lanegunetan: Ubidekoak 09:00etan eta

16:15ean urtetan dau Gasteizetik eta

Otxandiokoak 10:30ean.

Zapatuetan: Otxandiokoak 10:30ean urtetan

dau Gasteizetik eta Ubidekoak 16:30ean.

Jaiegunetan: Ubidekoak 16:30ean urtetan

dau Gasteizetik. Otxandiokorik ez dago.



Argitaratzailea: ZERTU Kultur Elkartea.

Helbidea: Herriko Plaza 24, 48142 Artea.

Telefonoa: 94 631 73 14.

Helbide elektronikoa: begitu@topagunea.com

www.begitu.org

Erredakzino burua: Beatriz Azpiri. Telefonoa: 94 631 73 14 eta 649 979 112.

Kudeatzailea: Inigo Iruarrizaga.

Erredakzino taldea: Ainhoa Duñabeitia, Clara Luja Azpiri eta Jon Urutxurtu.

Maketazinoa: Inigo Iruarrizaga.

Publizidatea: Inigo Iruarrizaga. Telefonoa: 94 631 73 14 eta 649 979 115.

Banaketea: June Egileor, Maria Rodriguez eta Pablo Rodriguez (Lemoa eta Bedia), Julen Eskalante eta Ibai Milikua (Areatza), Iratxe Arribas eta Xabier Mendieta (Zeanuri), Berbizkunde Arroita (Zeberio), Amaia Uriarte eta Eneko Iriondo (Dima), Nerea Romero (Igorre) eta Peio Murgoitio (Arantzazu, Artea eta Ubide).

Tirada: 6.400 ale.

Inprimategia: Iparragirre Editoriala.

Babesleak:

Kultura Sailak (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza)
diruz lagundutakoa



Bizkaiko Foru Aldundia
Diputación Foral de Bizkaia
Kultura Saila
Departamento de Cultura

bbk

ZEURE BERBEA

IGO auRREkontuetara

Aurten be aurrekontu partehartzailen prestaketan gabiz buru belari, udal aurrekontuen eraketa dan moduko gai baten, herritarren abotsa albait ondoen batuko dauan metodoan sakontzen.

Danok daukagu zer esana, andra zein gizon, zahar zein gazte, Urkuzutik Mikelera, San Kristobaletik Basauntzera, alkarteetan beharren dabizenak zein ez. Udalak eta herriak bat egin behar dabe. Herritarren berbeak, zeuon esanak guretzako balio handia daukalako. Ezer egin orduko, dirua honetan edo haretan erabili ebatzi orduko konsultau egin gura jatzuelako. Herriko gaien ganean danok daukagulako zer esana.

Udal Gobernuak proposamen bi-deragari baina zabala eroango dau batzarretara, herri osoko beharizanak kontuan hartu gurean osotuko.

Herritarren beharizanak dira gure abiapuntua eta ilusinoaren oinarria. Herrirako, zeure auzorako onena zer dan azaltzeko modua emoten dau aurrekontu parte hartzaileak, herritarrek ezagutzen dabez ondoen euren beharizanak. Guk udaletxetik bitartekoak jarriko doguz eskura, herritarren guneak eta batzarrek ahal danik eta erabakitzaileenak izan daitezcan udalaren proposamena moldatu, aldatu edo hobetzeko.

Informazioa daukanak hobeto irudikatuko dau etorkizunerako zelango herria, zelango Igorre gura dauan. Horixe da gako, informazioa. Gutako bakotzak informazioa

hartu eta emon egin behar dau, emon eta hartu. Informazio barik ezin da parterik hartu.

Auzo eta erdigunean detektatu doguzan arazo eta beharizanak azalduko doguz eta aurten aurrekontuetarako beharrezko edo onuragarriena ikusten doguna herritarrok kontrastatu.

Gure behar egiteko modua hauxe da: Herriko beharizanak detektatu, proposamen bat prestatu eta azaldu, herritarren ekarpenak jaso, komisinoan adostu eta ahal bada, ago batez 2012ko aurrekontuak onartu. Baina ez daigun ahiztu kontu garrantzitsu bat, izan be, azken ebatzia plenoan hartzean da.

Agirre Lehendakaria eta beste egitasmo desbardinak. Zeure eretxia emon eta herritar lez zer esana dozulako eta gu entzuteko gogoz gogozalako, urri lehenengoan auzoz auzo, pausuz pausu ibiliko gara. IGO auRREkontuetara, Igorreko herria, danon aukerea!

- Urri lehenengoak 12, Garbe-Mikele, udaletxean, 19:30etan.

- Urri lehenengoak 15, San Kristobal, txokoan, 19:30etan.

- Urri lehenengoak 19, Gezala-Basauntz, udaletxean, 19:30etan.

- Urri lehenengoak 20, San Juan, txokoan, 19:30etan.

- Urri lehenengoak 21, Urkuz-Garakoi, txokoan, 19:30etan.

- Urri lehenengoak 22, Kultura-kirola, Kultur Etxean, 19:30etan.

- Urri lehenengoak 28, Erdigunea-Olabarri, Kultur Etxean 19:30etan.

**BEINAT ANZOLA URIARTE
IGORREKO ALKATEA**

Zure eretxia agertu gura badozu, Zeure Berbea atala zabalik daukazu. Ez da komenidun makinazko 15 lerro baino gehiago idazterik gutunotan. Izena, telefonoa, helbidea eta Nortasun Agiriaren zenbakia agertu beharko dira. Laburtu behar izan ezker, BEGITUK eskubidea dauka horretarako. Gutunak hona bidali: Zertu Kultur Elkartea. Herriko plaza, 24. 48.142 Artea edo begitu@topagunea.com helbidera.

GEURE BERBATEGIAREN LEIHOTXUA

ANGEL LARREA ETA JUAN REKALDE

Inontza



Sari ikusten dogu lorategi batetik edo solo baten ondotik goizean pasakeran zelan gaueko freskureak (aire ezoaren kondensazioak, zehatz-mehatz esanda) sortu dituan ur-tantak bedarraren ganean. Hori da inontza. Eta euria egin ostean, lur ganean edo landaretan egoten dan ur-tantakadeari, barriz, garoa esaten deusagu. Berba biak esateko, euskara batuaz, ihintza erabilten da.

ERETXIA

Garagarrila argazki eta ariman

Benetan irudiaren gizaratean bizi gara, Guy Debord-ek "ikusizun gizaratea" izentatzen eban horretan hain zuzen, eta gertakizun batzuk, gero eta gehiago, irudi eta ikusizun izatera kondemnatu dagozala dirudi. Errealidade hau gure egunerokotasun sozial eta politikoa sartzean da, eta behin eta barriro ikusten dogu irudiaren gaitasuna gauzak jasota ixteko; irudia edota argazkia, danaren, existiduten danaren eta errealidadea edo errealidadea emoten dauarena paradigma legez. Baina —eta horixe da Debord-en hausnarketearen sakona— baita dala emon arren, ez danarena; errealidadea emon baino itxurea baino ez danarena, edota gauza bat dala emon eta beste bat danarena.

Aurtengo garagarrilean, 1936ko garagarrilaren 18ko kolpe faxistaren 75. urteurrena bete da. Egindako hausnarketa hori erregimen frankistaren biktimai eta eredu espainolaren zigorgabetasunari ekarri ezker, hausnarketearen gardentasuna nabarmena da. Orain dala urte batzuk biktima honeen eta zigorgabetasun sistema honen ganeko eztabaidak barriro publiko, sozial eta politikoa izatea lortu zanetik, biktima eta hareen familien presinoagaitik eta gurea bezalako alkarte lanagaitik, atera dan argazkiak gure eskakizun eta aldarrikapenak itxi ditu jasota eta jaso be egin dau erakundeak eta politikoa bazterrean itxi daben gure salaketa eta zigorgabetasun kontrako burruka esparruan barruan dagoana: milaka desagertu, hobi komunak, inongo agiritan jaso ez diran fusilauak, errekonozimeturik eza faxismoaren biktimai eta faxismoaren kontra burrukatu ebenai, salake-



MARTXELO ALVAREZ
Ahaztuak 1936-1977

tak, mobilizazioak...

Dana dala, eta honegaz batera, beste argazki bat errepikatzen da ikusizuna baino ez dan errealidade bat islatzeko asmoagaz. Eta ez da frankismoaren biktimen arazoak ardurea, hareegazko errespetua eta politikoen aldetik hareen eskakizunak inplikazioa transmitidu gura dalako... behin eta barriro eguneroko praktikak hori gezurtatzen dabe eta.

Pasa dan bagilearen 19an, -tro-pa frankistak Bilbo hartu izanaren urteurrena- Artxandako ekitaldia honen adierazlea izan zan, barriro be frankismoaren biktimak erabili zituen eta bertaratu ziran politikoen marketing-erako, ikusizun politikarako, arima bako argazkirako. Barriro be, 2006tik urtero egiten daben moduan, Bilboko Udaleko nagusia —Iñaki Azkuna alkatea— Bizkaiko Foru Aldundikoa —Jose Luis Bilbao, Ahaldu Nagusia— eta Eusko Jauriaritzakoa —Idoia Mendia, erakunde honetako berbadunasaia— ziran gure memoriaz, gure aldarrikapenaz eta gure arimaz jabetzen euren eginez, faxismoaren kontrako burrukalarien argazkia euren onurarako erabili ahal izateko.

Gauza honek eta holango argazkiak dira Ahaztuak 1936-1977 alkartetik hasieratik salatzen doguzanak eta gure strategiaren parte da Espainiako ereduaren zigorgabetasuna salatzea bere adierazteko modu eta maila desbardinetan: marketing horren aurrean planto egiten dogu, ezin dogulako onartu politikoa eta erakundeetako karguen aldetik holan erabiliak izatea, honek

kaleetan eta erakundeetan sin-bologia frankistea egoten ixten dabelako, burrukalari antifrankistak errekonozimendua ukatzen deutseelako, frankismoaren biktimak beste biktima batzuen aldean menpeko kategoria baten ipinten dabezalako...

Artxandako omenaldi hau baino egun batzuk lehenago Gasteizko Parlamentuan, PSE-EEren aldeko botoakaz, -Idoia Mendia bertan parte hartu eban- ukatu egin eutseen terrorismoaren biktima errekonozimendua 1976ko martiaren 3an Gasteizen eraildako langileai, hori bai, hareenganako solidaridadea adierazoz. Aste gitxi batzuk lehenago Espainiako Parlamentuak, PSOEren botuakaz, ez eban onartu armak eskuan erregimen frankistaren kontra burruka egin ebenak eta horregaitik hil zituenak kalte ordainak merezidu dabenik. Holan, ganera, Estaduko Fiskaltza Nagusiak ezin ditu "erregimen frankistaren ebazpenen balioagabetezko agiriak" egin. Eta amaituteko, diru publikoagaz eta ideologia aldetik behintzat eta guztiz pribadua dan kontrolagaz, errebisionismo historiko, frankismoaren apologia eta zigorgabetasun eredu espainolak daukan osasun onaren ispidu dan maisulan hori argitaratu dabe: Historia Erret Akademiaren Hiztegia.

Uste dogu hausnarketa honek, mugari honek dirala errealidadea marketan dabenak, argazkia eta arima non dagozan erakusten dabenak. Hareen eta gure kartografia, gure beharrik eta gure lotsak be erakusten dabez, ze ezin dogu ahaztu zoritxarrez, batzuetan biktimok, zigorgabetasun eredu honek aintzat ez hartutakook, garala politikoa eta erakunde aldetik erabiliak izatea posible egiten dogunok, askotan gure interes eta aldarrikapenen kontra.

Gure errealidadea —eta hareena— argazkitik harago egiten dogunagaz neurtzen da. Hori da gure arimaren benetako neurria.

BATZ
BATZ, S. KOOP.
Tornea auzoa, 32
48140 IGORRE (BIZKAIA)

- Trokelgintza
- Automobiletarako Sistemak

*Beharrea beharrez,
euskeraz eginez*

Enbata
Batzen gaitu

MONDRAGON
INDUSTRIAL CORPORATION

LUMATUTEN



IÑIGO OLABARRI

Txubelaxuak

Sanroketa gauzak ez dira askorik aldatuten, urte batetik bestera, Olazabalén. Zorionez. Hara doanak, doanean doala, badaki gitxi gorabehera zer topauko dauan ailegetan danean. Urtean behingo errutina txiki horregaitik, seguruenez, batzuetan denpora astirotxuago doan itxurea hartzean dau han dagoanak.

Sensazio hori sakonduten dau beste leku batzuetan aspaldian ikusi bako irudiak ikusteko aukera emoten dituan lekua izateak, Arratian dagozan beste hainbat auzotan pasetan dan lez, pentsetan dot.

Lehenago sarriago ikusten zan eta gero eta gatzagoa dana erreparau leiteke han zer egin ezean egonda. Ume bat iturrian eskuak sartuta, beso bata blai, zelan ez. Kamisetea be bai; frakak, hasikeran zuri, ordurako marroituten hasita.

Baeukan ume harek PSPagaz ibiltea; hori be egingo eban. Bauekan telebisinoa ikustea; hori be, zalantza barik, egingo eban. Baina, beste leku batzuetan dagoaneko egiterik ez daukan hori be egin eban: txubelaxuak harrapau. Ez dinot bata bestea baino hobea danik, azkenean umeak bizi diran garaian bizi dira eta daukiezan baliabideak daukiez.

Seguruenik bere aita be han ibiliko zan urte batzuk lehenago, igual aitita be urrin ez. Batetik bestera janzkerea aldutuko zan eta orrazkerea akaso. Gurasoak gero mahaira holan agertzeagaitik egindako gedarren intensidadea be ez da bardina izango. Gainontzean, desbardintasun gitxi.

Seguruenik, han aspertu ostan beste lagun batzuekazu batu eta zer egin eikien pentsetan hasiko ziran. Gauza onik ez, baina txar-txarrik be ez.

Ermitako kanpaiak, behar ez zan orduan joko eban eta behar baino sarriago, txaleteko hesiko harriak ohi baino higadura handiagoa jasan behar izango eben eta, igual, igual bakarrik, hango paddle pistan tenis pelotaren bat faltako da.

Azkenean batek ez daki denpora dan, irudiak errepetidutearan podesuz, astiroago doana edo, beste barik, edo denpora bardinean, itxuraz gauza asko egiterik ez dagoan lekuan, gauza asko egin leitekezala.

Eta umeak beti ume.

ZERTZEAN



IGOR ESTANKONA

*I squat all naked too,
is this our body?*
(Gary Snyder)

Orain ezin ditut, lehen bezala, umeak eta guda imajinatu zure aho gozoa delako nire paparreko negarra eta zure gaixotasuna alaitasuna, nire elgorria birigarroaren kantua arratsetan, bainura sartzean ipurdia, gorputza eta egunen batean aterako zaizkizun bularrak maite dizkizut lehortzen zaitudan bitartean.

* Zertzean atalean argitaratuko doguzan testuak, literarioak edota sormenekoak diranez, heltzean diran moduan argitaratuko doguz eta ez doguz gure euskera erudian ipiniko.

Tarte hau zeuretzako be dago zabalik, holango sormen-lanak BEGITUN argitaratu gura izan ezker, eskatu egiguzuz argitaratzeko baldintzak begitu@topagunea.com helbidean.

Nahia eta laurok

Lehoiek eta hartzek miazkatzen zaituzte ametsetan, esneko haginek mozten dizute ahoko haragi freskoa kaltziozko laino horien artetik bizitzako lehen haranetan ibili ondoren, barre egiten duzu iratzartzean, ez dago presarik, besarkatzen zaitut ama ere bai, amak zu ere bai, eta zuk ama, eta oihanaren zabaletik sartzen da gure azalen argiaren eta bizitzaren odol-oihal zurien usaina.

BEGI TXINDORRA

Hasi jakuz mundu zabaletik argazkiak heltzean. Eta Venezia, Kashmira, Getxo, Rovinj (Kroazia), Senegal, Delhi, Britainia, Palentzia eta Kataluniako parajeak ezagutzen gabiz Arratiatik bertatik, geugaz zuon oporrak konpartidu gura izan dozuezanoi esker.

Atal honetara ekarri dogun argazki hau Cristina Vidalek atera dau Kashmiran. Cristinak igazko bigarren saria lortu eban (AMEk emondako 100 euroko balioa daukan bonoa) eta aurten be prest dago sariren bat irabazteko. Izan be, gure lehiaketaren edizino honetan be, sari bi egongo dira: lehenengoa, astegoiena eta gosaria Nafarroako landetxe baten; eta bigarrena, 100 euroko bonoa AMEko dendetan gastetako.

BEGITUREN iralurren artean sano argazkilari onak dagoz eta lehia gogorra izango dala ez dogu dudarik egiten. Jasotako argazkietan agertuten diran paraje ederrak paradisu dirudie oporretan dagoan bidaiariaren begiradeari esker. Guk begitu eta amets egingo dogu.




Lorategien Diseinu eta Gauzatzea
Ureztaketa instalazioa
Mantenua eta Inausketa

Gorosti
LORAZAINTZA

Bidosola Industrialdea E2 Pab. 48. 142 Artea
Tel: 94 673 96 34 Faxa: 94 673 96 88
gorosti@gorostisl.com

 **agoa** Ortodontzia
hagin klinika Implanteak
Estetika

Marina Urigoitia Aidedoa
Odotzopoa

Bidebarri 1, behea
48140 Igome-Bikala
T. 94 631 50 39

Marina Urigoitia MD
R.P.S. 2006

EXCAVACIONES
MARGOIZA

*Ioñabi
Martín Gorostiza*

Ubideratzeak
Lurrerauzketak
Baso pistak
Ur Putzuak
Era guztietako hondeaketak

Tel. 607 272 424
610 271 128
Tel/Fax: 94 433 22 28

Bº URIBE - 48144 ZEANURI
e-mail: margoiza@euskolnet.net

ARRATIA

Auzuneetako jaiak

Erredakzinoa

Urietan oraindino jaiak ospatuteko aukerea badago. Hile honetan, San Antolin jaiak Zeberiko herrian, Lemoako San Antolin ermitan eta Dimako Oban ospatuko ditue; andramariak Artean eta Lemoako Elizondon; eta San Migel jaiak Arteako San Migel ermitan, Igorreko Garbe auzunean eta Zeanuriko Urriben aurreko astegienean eta Alzustan ostekoan ospatuko dabez jaiok. Sanmigelak, hile amaieran dagozanez, jaiak urri bigarrenera arte luzatzen dira leku batzuetan. Alderantzizkoa gertatzen da Dimako Indusin. Han sanfreskuak ospatzen dira eta San Freku eguna urri bigarrenaren 4a izan arren, jaiak urri lehenengoan hasten dira.

San Antolin jaiak Lemoax (Lemoa)

URRI LEHENENGOAK 2, barikua
12:00etan, Mezea San Antolin baselizan. Ostean barauskarria.

14:00etan, Indaba lehiaketaren lapikoen aurkezpena.

16:00etan, Erromeria JOKALDI taldeagaz.

Egun horretan, Lemoaxara autoz ez igotzea gomendatzen dabe udaltekook eta mahaia erreserbetako udaletxean emon beharko dabe izena abuztuaren 22a baino lehen talde edo partikularrak, eta 30 euroko fidantza ordaindu.

Andra Mari jaiak Elizondo (Lemoa)

URRI LEHENENGOAK 8, eguna
12:00etan, Mezea Andra Mari eleizan.

17:30ean, Umeentzako jolas eta tailerrak Elizondon. Zazparrak taldeak antolatuta.

19:00etan, Euskal Kantuzaleen Elkar-
teak-Kantagintzaren eskutik kantaldia Elizondon.

22:00etan, Zeani Antzerki taldeak 24 ordu Gerbasio gaz antzezlan antzetzuko dau.

URRI LEHENENGOAK 10, zapatua

13:00etan, Triki poteoa.

15:00etan, Bertso bazkaria. Bertsolariak: Jon Maia eta Igor Elortza.

18:00etan, Mariskal DJ-a.

San Migel jaiak

Guztiz zehaztu barik dagoz aldizkaria zarratzen dogunean, baina gutxi gorabehera honek dira egitarauak.

Garbe (Igorre)

URRI LEHENENGOAK 29, eguna
Mikelen mezea eta ostean barauskarria.

URRI LEHENENGOAK 30, barikua

Mezea eta arimen aldeko mezea.

URRI BIGARRENAK 1, zapatua

Arrastian Briska eta Mus txapelketak.

URRI BIGARRENAK 2, domekea

Arrastian Briska eta mus txapelketak.

Iluntzean antzerkia edo erromeria (zehaztu barik).

URRI BIGARRENAK 8, zapatua

10:00etan, Nekazal azokea.

San Migel jaiak (Artea)

URRI LEHENENGOAK 29, eguna
Mezea eta barauskarria ermitan.

San Fresku jaiak

Indusi (Dima)

URRI LEHENENGOAK 30, barikua
16:30etan, Txupina eta jaien hasiera.

rea.

17:00etan, Briska txapelketa.

19:30ean, Txixiburduntzi.

20:00etan, Erromeria.

23:00etan, Kontzertua TAPAKU-BOS taldea.

02:30ean, Txokolatea.

URRI BIGARRENAK 1, zapatua

13:00etan, Gazte Barri jantza taldea.

13:30ean, Bertsolariak.

14:00etan, Txalapartea.

14:00etan, Baba lapiko lehiaketa.

17:00etan, Umeentzako jolasak.

19:30ean, Berakatz zopa, tortilla eta tostada lehiaketa.

20:00etan, Erromeria.

23:00etan, Auzokoen antzerkia.

23:30ean, Mozorro lehiaketa.

00:30ean, Tango lehiaketa.

URRI BIGARRENAK 4, martitzena San Fresku

12:00etan, Mezea.

13:00etan, Barauskarria.

14:00etan, zozketa.

ARRATIA

Europako Mobikortasun Iraunkorraren Astea Arratian

Erredakzinoa

Hilaren 16tik 22ra Europako Mobikortasun Iraunkorraren Astea ospatuko da eta hainbat udalerrik parte hartuko dabe, tartean Arratiako Udalen Mankomunitateak.

Europako Mobikortasun Iraunkorraren Astearen haira mankomunitadeak hainbat ekitaldi antolatu ditu.

URRI LEHENENGOAK 17, zapatua

10:00etatik 15:00era Tren turistikoa Areatza eta Artea artean Merkatarera joateko (garraio kolektibo moduan eta doban).

URRI LEHENENGOAK 18, domekea

Bediako 3. Ibilbide zikloturistikoa.

Urteerea 11:00etan plazatik.

URRI LEHENENGOAK 22, astelehena

Auto bako eguna. Ikastetxe eta Institutuagaz batera ekintzak antolatuko dira: bizikleta martxak...

URRI LEHENENGOAK 24, eguaztena

Arratiako ibaiertzetatik 2. martxa. Bediatik Zeanurira oinez. Urteerea 09:00etan Bediako plazatik. Autobusa egongo da herri guztietatik Bediara joateko eta gero Zeanuritik bueltetako. (Zeanuritik 08:30ean urtengo da eta Areatza, Arte, Arantzazu, Igorre eta Lemoatik pasauko da, autobusen paradetan; martxea amaitzen danean Zeanuritik, herriz herri Bediaraino).

IGORRE

Krisiak eragin deutso motorzaleai

Erredakzinoa

Arratia Motor Taldeak antolatuta urri lehenengoaren 11n izango da Arratiako motorzaleen X. Bilera. Aurreko urteetan egun biko jaia izaten zan eta kanpotik etorritako motorzaleak, Igorreko futbol zelaiaren ondoan kanpatzen eben. Aurten "krisia eta beste eragozpen batzuk" dirala eta, egun bakarreko jaia ospatuko dabe motorzaleak.

Motorzaleak goizeko hamarretan batuko dira Igorreko Donibane tabernan. Handik abiatuko dira Arratian zehar ibilaldi bat egiteko eta ostean parrilladea egongo da parte hartzean dabenentzat.

Izena emoten daben lehenengo 150 motorzaleai kamiseta bana emongo deutsee antolatzaileak. Igorreko Udala, Arratiako Gurutze Gorria, Donibane taberna eta Pub Dakota izango dira motorzaleen jai honen laguntzaileak.

IGORRE

Euskera Planaren INBIU 2011 jaialdia

Igorreko Euskera Planak 9. INBIU jaialdia ospatuko

dau aurten. Hilaren 24an izango da eta Lip Dub

grabazioak emongo deutso hasiera jaialdiari goizeko

10:30ean.

Erredakzinoa

Euskera Planeko kideak buru be-larri dabiz Lip Dub-aren prestaketa lanetan: ibilbidea, gidoia, atrezzo, parte hartzaileak non, zertan, ze segundotan, letra zatia... Dandana oso ondo planifikau behar da urri lehenengoaren 24ko grabazioan ezustekorik egon ez daiten. Izan be, Lip Dub-ak daukan baldintzetako bat da kamara bakar batez eten barik grabau behar dala eta horrenbestez, parte hartuko daben 20tik gora alkarrek sinkronizauta lan egin beharko dabe bideoa sekuentzia bakar baten grabau ahal izateko. Horretarako, hilaren 6an egingo dabe lehenengo batzarra arrastiko 19:30ean ibilbidearen ganeko zehaztapenak parte hartzailei emon eta ekarpenak jasoteko. "Halanda be, batzarra irekia izango da eta Lip Dub-ean parte hartu gura dauan edozeinek, alkarre baten egon zein egon ez, batzarrera

hurreratutea besterik ez dauka. Bestela be, webgunean kantua eta letrea eskuragarri egongo dira eta Lip Dub-aren zehaztapen guztiak behin finkatu ezker, ibilbidea, gidoia eta abar webgunean kontsultau ahal izango dira" azaldu deutso BEGITURI Amaia Arauzo Igorreko euskera teknikariak. Grabazioaren ostean, oilasko izterren pintxo jana egongo da udaletxeko plazan.

Eguerdian, jaialdiari jarraipena emoteko herri bazkaria egingo da Lasarte plazan edota euririk egin ezker, eskolako aterpean. Bazkarirako txartelak salgai egongo dira Kiroldegian, Gau Loran, AZ Rugby Tabernan, Axular herriko tabernan eta Batzokian hamabost euroko prezioan. Arrastian, 17:30ean, AMEk (Arratiako Merkatarien Elkar-
teak) antolatuta, Jokaldi taldeagaz erromeria egongo da. Eta jaia amaituteko, 21:00etan txokolatea eta bizkotxoak egongo dira Beinkek, Igorreko Merkatarien Euskera Taldeak, emonda.



Igorreko gazteak 2008ko INBIU egunean.

BEDIA

Gazte bi hilda auto istripuan

Erredakzinoa

Abuztuaren 13an, Bedian, N-240 kaminoan, istripu bat gertatu zan eta honen ondorioz 23 urteko gazte bi hil ziran. Autoan joiazan beste hiru lagun zaurituta atera ziran istriputik.

Eusko Jaurilaritzako Herrizaingo Sailak adierazo ebanez, istripua goizeko zortzirak hogeitxiagotan gertatu zan, Bilborantza joian Volkswagen Golf batek aparkauta

egoan kamioi baten kontra jo ebanean. Bertan bost gizon gazte joiazan eta horreetako bi autoan harrapatuta geratu ziran. Hildakoak Audio eta Trapagaraneko bizilagunak ziran.

Auto gidaria, Barakaldoko 31 urteko gizona, helikopteroz eroan eben Gurutzetako Ospitalera; zauritutako beste biak, barriz, Bilbo eta Basauriko 19 eta 18 urteko gazteak, anbulantziak Gal-dakaoko Ospitalera.

ZEBERIO

Hasi dira sanantolinak



Los zopilotes txirriak taldekoak.

Erredakzioa

Zeberioko jaiak hasi baino ez dira egin eta oraindino ekintzaz betetako egunak geratzen dira. Horregaitik, gogora ekarri gura izan doguz ekintzok. Interesgarria, zapatu gauean egongo dan kontzertu maratona: honek barik inguruko gazte asko erakarriko ditu Zeberiora.

URRI LEHENENGOAK 1, eguena

17:30ean, Frontenis txapelketaren finala.
19:00ean, Jaien hasiera. Txupina LOS INCANSABLES txarangeagaz, Zeberioko Txubelaxuagaz eta buruhandiakaz.
21:30ean, Herri afaria, txahal errea.
23:00ean, Erromeria OBANEUKEgaz.

URRI LEHENENGOAK 2, barikua

12:00etan, Umeentzako ekintzak eta puzgarriak.
12:00etan, Mezea eta barauskarria.
17:00etan, Umeentzako motor, patinete eta abarren lasterketea.
18:00etan, PIRRITX, PORROTX ETA MARIMOTOTS pailazoan *Ongi etorri Pupu eta Lore* ikuskizuna.
19:00etan, ZAPARRADA batukadea.
22:00etan, kontzertuak ANJE DUHALDE, ZE ESATEK, eta LOS ZOPILOTES TXIRRIAS.

URRI LEHENENGOAK 3, zapatua

11:00etan, Herri kirolak koadrilen

artean.

12:00etan, Zeberioko Musika Eskolako musikariak (helduak).

13:00etan, Tortilla, gisau eta makailao txapelketak aurkezteko ordua.

19:00etan, Kontzertu maratoniaren hasiera SUTE taldeagaz. Ostean, TAPAKUBOS. PALAZO EN LA CARA. SEIS METROS BAJO TIERRA. NIK KHAOS. BAJO PRESION. EL LOBO DE ARMAÑON. STRICALLA. ITZIARREN SEMEAK eta FEOS PERO MAJOS.

URRI LEHENENGOAK 4, domekea

11:00etan, Zeberion Karran III. Lasterketea.
12:30ean, Laura Orueren aldeko XII. urteurren mezea.
13:30ean, Bits jaia.
13:30ean, Zeberioko Musika Eskolako trikitilari gazteak.
18:00etan, Untzueta Jantza Taldea.
21:00etan, Zeani Antzerki Taldearen *Ordubete Gerbasiogaz* antzezlan.

URRI LEHENENGOAK 5, astelehena

12:00etan, Ume eta gazteentzako jolasak.
14:00etan, Poteoa trikitixegaz.
15:00etan, Indababak lagun artean.
19:00etan, Esku pelota partiduak Javier Uriaren VIII. Memoriala. Zeberioko gazteak eta profesionalak.

ARTEA

Musikea eta kaleko ikuskizunak jaietan

Uda amaitzeaz dagoanean, urri lehenengo andramarietan, herriko jaiak ospatuten dira Artean.

Erredakzioa

Aurten lau eguneko jai egitaraua prestatu dabe eta egunotan musikaz beteko dira herriko kaleak: erromeriak, kalejirak, bilbainadak, play-backa, Areatzako Banda... Kale antzerkia eta pailazoak be izango dabe euren lekutua Arteako kaletan.

Jaiak gitxi antzean eretxi ezker, hilaren 17an MerkArtea azokea izango dan egunean, azoka ostean kontzertu ugari egongo dira, arrasti eta gauean zehar.

URRI LEHENENGOAK 8, eguena

11:00etan, Txupina, buruhandiak eta trikitixea.
11:30ean, Tailerrak.
12:00etan, Mezea.
12:30ean, Bilbainadak LOS TXIKIS.
17:30ean, Zinea ludoteka.
19:00etan, Txixiburduntzia.
20:00etan, Erromeria JOKALDI taldeagaz.

URRI LEHENENGOAK 9, barikua

17:30ean, POTXIN ETA PATXIN pailazoak.
21:00etan, Erromeria IZARGI taldeagaz.
00:00etan, Nagusien Play-Backa.
00:30ean, Kontzertuak, MANOLO CABEZABOLO eta NIK.

URRI LEHENENGOAK 10, zapatua

11:00etatik **14:00**etara, Umeentzako parkea.
14:00etan, Tortilla txapelketea eta bazkaria plazan.
18:00etan, Desafioa.
20:00etan, Umeen Play-Backa.
20:30ean, Erromeria JO TA HANKA

taldeagaz. Mozorro gaua. Gaia: zinea.

URRI LEHENENGOAK 11, domekea

12:00etan, Areatzako Banda.

17:00etan, Mus eta Briska txapelketak.

19:00etan, Kale Antzerkia OIHU-LARI KLOWN taldeagaz.

20:30ean, Txokolatea.

Etenbarik barritzen da MerkArtea baserriko produktuen azokea

Aurten 18 urte betetzen ditu urri lehenengoaren 17an ospatuko dan MerkArteak. Adin nagusira heldu da, beraz, Arteako azoka hau. MerkArtea, inguruko azokarik inportanteenetakoa da eta Euskal Herri osoko baserriarrek eta artisauek euren produktuak bertan saltzera etorten dira. Aurten 80 postu inguru egongo dira, Arteako Udaleko iturrien arabera.

Aspaldi honetan, dana dala, azokeaz ganera jaia be izaten da azoka egunean. Aurten, Esparreguerako Musika Eskolako gazteak egongo dira Artean eta kontzertu bat eskeiniko dabe. Eurekaz castellersak edo Katalunian tradizionalak diran persona torreen erakustaldiak egiten da-

bezan gazteak ago zabalik itxiko dabez ikustera datozenak euren giza torreakaz.

"Gu Gira" ikuskizuna eta erromeria ez dira faltako egun honetan, jai giroak goizeko ordu txikiak arte iraun daian.

Egitaraua

10:00etatik **15:00**etara, Azokea.
19:00etan, Esparreguerako Banda.

20:00etan, Esparreguerako *El Castellors*.

21:30ean, "Gu Gira": GONTZAL MENDIBIL ETA XEBERRI, GORKA KNÖRR, URKO, ERRAMUN MARTIKORENA, TXOMIN ARTOLA ETA XABI SAN SEBASTIAN.

23:30ean, Oiloen entzierroa.

00:00etan, Erromeria plazan.



Castellersak orain dala urte batzuk Artean.

* KIRRU * ILEAPANDEGIA
SOLARIUM
Roberto eta Rosana
Sabino Arana, 38 bajo - 48140 IGORRE (Bizkaia)
☎ 94 631 92 00

Erromeria
GARRAIOAK
Ilugikorra 629 465 335
Irantze azoka, 12 LEHIOK
Tfnoa: 94 631 50 82 Faxa: 94 631 51 81

Igorren
ARKITEKTOA
Aitzol Aurrekoetxea Pujana
Lehendakari Agirre 23, behea
aitzol@coavn.org - 675 705 111

Pinturas Arratia
Javi Morato
Tel. 628 443 992

AHOLKULARITZA:
LEGE-LAN ARLOAN
ZUZENBIDE
ZERGA ETA DERU KONTSULTAN
ONDASUN HIGIEZINEN
ASBOKUETAN
Sabino Arana, 3. Floor. 48101 ITZIARREN - Faxa: 94 631 92 00

Los Chopos
neurritza egindako armairuak
Arda, Los Chopos, 35 (Nagat) Tel.: 94 430 40 94
Esposizinoa eta
fabrikea Lemoan
Pozueta poligonoa, Lemoa 94 631 34 44
www.armariosloschopos.com

ARTEA
Arteako Udalak
Gora Andra Mariak!
JAI ZORIONTSUAK
OPA DEUTSUEZ

IGORRE

Aste nagusian gauetako zerbitzua hobetutea eskatu eban udalak

Erredakzioa

Igorreko Udalak Bilboko Aste Nagusian Arratiara datorren autobusa autopistaz etortea proposatu eban erabiltzaileen onerako eta arratiarentzat lekua egoteko.

Hainbat herritarren kejak jaso ditu Igorreko Udalak Bilboko Aste Nagusian Bizkaiko Foru Aldundiak gauetan ipinten dauan autobus zerbitzua dala eta. Orain arte, 3917 zerbitzua eskeintzen dauan linea herriz herri etorten da. Autobusak goraino betetzen dira Galdakaoko erabiltzaileakaz eta Arratiako eskualdeko erabiltzaileak sartu ezinik geratzen dira goizaldean ordurik gehienetan. Galdakaoko geralekuaren ostean, autobusak erdi hutsik heltzean dira Igorrera. "Proposamen honen helburua ez zan Galdakaoko erabiltzaileak zerbitzu barik ixtea, ez da gitxiagorik be" dinoe Igorreko Udaleko iturriak.

Beraz, Igorreko udalbatzak bere osotasunean eskatu eban

Bilboko Aste Nagusian gauetan Bizkaibusek Arratiarako ipinten dituan autobusak urte osoan zehar 3927 autopistako zerbitzua eskeintzen dauan linearen ibilbide bera izatea. "Ez dogu beste linea bat eskatzen, dagoanari ibilbidea aldatzea baino, hau da Usansolon izatea lehen geralekua" dino Soraya Lizundia Igorreko Udaleko zinegotziak.

Dana dala Igorreko Udalak ezezkua jaso eban Diputazinotik.



Autobus geralekua.

ARRATIA

Bigarren aukerea kamisetea lortzeako

Erredakzioa

Zertuk kamiseta dotorea opari eutsen neurria jakinarazo eutsien begitu-lagunai. Dana dala, asko izan dira BEGUTAGAZ kontaktuan jarri ez eta kamiseta barik geratu diranak. Begitu-lagun horreek dabizenez kamisetea eskatuten, barriro be eskatzeko epea zabalduetea ebatzi dau Zertuk.

Aurrekoan eskatu ez ebenak, orain daukie kamisetea eskuratzeko aukerea. Horretarako gizon ala andrazkoaren kamisetea eta neurria zehaztu behar dira begitu@topagunea.com helbidera idatziz edo 649 979 115 telefonora deituta hilaren 30a baino lehenago.



Kamisetea.

LEMOA

Lemoako lagun bat hil da Gironan ustez istripu baten ondorioz

Erredakzioa

Lemoako Eneko Zamalloa Gi-

ronan hil zan abuztuaren 18an, 35 urte eukazala. Kirolaria zan Eneko eta abuztuaren 14an, Gironan oporretan egoan. Zamalloa korrika egitera urten zan eta furgoneta batek harrapatu eban. Heriotzea ia horren ondorioz izan zan ala ez ikertzen dabil Kataluniako Mossos d'Esquadra polizia. Ikerketea sumario sekretupean dago, Lemoako Udal iturrien arabera.

Lemoakoa ezkondu eta egoan eta alaba bi zituan.

ARRATIA

Gorbeiarako proiektuak diseinetan

Erredakzioa

Gorbeialdek eta Creativity Zentrumek antolatuta, urri lehenengoaren 28, 29 eta 30ean, zona horretarako proiektuak garatzeko tailer bat zuzenduko dau Adital Ela diseinatzaile israeldarrak. Hamabost diseinatzaile, arkitekto eta ingeniari inguruk parte hartutea espero dabe antolatzaileak.

Urti lehenengoaren 20an, partaideak parkea bisitatu dabe proiektuok egiteko orduan zona honen preminen eta eskeintzen jakitun egoteko. Tailerlean lau puntu landu beharko dabez: ura modu ludikoan zelan sustatu, basoa interpretazio leku moduan zelan erabili, Pagomakurreko ostalua egoan lekuan aterpetzea edo antzeko egiteko ideak asmatu, eta parkea bisitetan daben turistai eskeintzeko pakete turistiko bat sortu beharko dabe. Landutako puntu bakotxerako lau idea eskeini beharko dabez tailerlean parte hartzean dabenak.

Antolatzaileak tailer honetan sortutako proiekturen bat edo beste gauzatzea espero dabe egoera ekonomikoak aukerea emoten badau.

UDAL EUSKALTEGIA



AMOREBIETA-ETXANO

Amorebieta-Etxanoko Udal Euskaltegia

1.- MATRIKULA ZABALIK: Irailaren 1etik 23ra

2.- 2,5 ESKOLA ORDU EGUNEAN

- Astelehenetik ostegunera
- Goizeko 08:00etatik aurrera

3.- ZENBATEKOA

- Taldean 341,82 €
- Autoikaskuntza 243,20 €

4.- AISA (Etorkinentzako ikastaroa)

- Fidantza 10 €

ERDU EUSKALTEGIRA!!



San Pedro, 5 48340 Amorebieta-Etxano
Tlfnoa. eta Faxe: 94 673 20 26 E-posta: euskaltegia@ametx.net

FUTBOLA

Arratiako neska futbolan jokatu eta (eta irabazte) gustetan jakie

Nesken futbol taldeak beti izan dabez sano emoitza onak Arratian eta kopa asko irabazi ditue. Dana dala, nesken futbolak ez dauka apenas babes edo errekonozimenturik. Neskak, baina, hor jarraituten dabe, temati, euren jokia egiten eta taldearen hamaikagarren denporaldia hastear dagoanean, mobimentu txiki bat somatzen da, zeozer aldatzen dabilala dirudi nesken futbolean.

Erredakzioa

Izan be, azkenengo denporaldi bietan, haur eta kimu mailetako taldeak sortu dira. Talde honeek sano ondo jokatuaz ganera -Arratian tradizioa dan moduan- neskatoai futbolean ibilbide osoa egiteko aukerea izateko eta egunen baten nagusien taldeko kanterea izan dai-tezan oinarriak ipini dabez.

C. D. Arratia "Soberano" gizonen zorrak kitatu arte

Nesken taldeen artean aitzindaria izan zan C.D. Arratia "Soberano" taldea. Izan be, Espainiako Federazioak nesken futbolari errekonozimendu ofiziala emon baino hamar urte lehenago sortu zan taldea. Taldeak Bizkaiko Kopa irabazi eban eta bere historia osoan partidu bakarra galdu ebal dino Pili Arandia talde haren atezainak.

Dana dala, emoitza honeek ez eben taldearen jarraipena bermatu eta urtegarrenean gitxi gorabehera, taldea desegin zan "inor ez egoalako neskak entrenetako prest".

"1969 urtea zan, Arratia futbol taldeak zorrak zituan eta jentea ez zan partiduetara joaten. Baten ba-

Haurrak seigarren egin

dabe ligan eta kopa

irabazi. Kimuak bigarren

ligan eta Athletic-eko

Memorial Uria irabazi dabe

Nagusiak seigarren

egin dabe ligan, jokalaria

garrantzitsuak luzaroan

lesionauta egon arren

"Soberano" taldeak

partidu bakarra galdu

eban bere historia osoan



Arratia futbol taldeko kimuak.

tek pentsau eban neska talde batek jente gehiago eroango ebal futbola ikustera eta holan zorrak kendu ahal izango ebalala taldeak. Halan-txe izan zan, ze pronostiko guztien kontra, urte haretako Bizkaiko neska talderik onena izan zan C.D. Arratia "Soberano" taldea" azaldu eutsan BEGITURI orain dala hiru urte talde honen sorreraren lekuko batek.

Erabilia izan zan nesken taldea. Gizonen taldearen zorrak kitatutakoan ez egoan inor neskak entrenetako prest. Sasoi haretan, "Soberano" pattarra "gizonen kontua zan", baita futbola be, antza. Taldea desegin zan eta taldeko jokalaria batzuk beste talde batzuetara pasau ziran. Inmaculada Rejas "Pelé", berbarako, Arratiako "Soberano"tik Sondikako "Mai Ona"ra pasau zan eta Italian profesionala izateko aukerea opatu eutsien.

Denporaldi bakarra egin arren, Arratiako futbolearen historia egin eban talde harek.

Hamar denporaldi eta egonkortzen

Urte asko pasau behar izan ziran 2000 urtean Arratia futbol taldeak neska talde bat sortu arte. Lehen Maila Regionalean jokatu dau taldeak denporaldi baten izan ezik, 2008-2009 denporaldian, hain zuzen. "Bigarren mailan egon ginanean, igo eta ezustea emon genduan kopako finalera helduta" ekarri dau gogora Leire Orue taldeko jokalaria.

Aurten seigarren egin dabe, le-sinoakak suerte txarra izan arren. "Nahikari (Diaz de Rada), Irune (Caballero) eta Naia Totorika lesionauta egon dira denpora luzean, denporaldi erdia baino gehiago. Gorabeherak euki arren, azkenean euki dogun taldeagaz nahiko ondo ibili gara eta ondo amaitu dogu" dino Oruek.

Baina neska taldeen zailtasunik handienak ez dira zelaian konponduten. "Beti euki doguz zailtasunik ekipoa egiteko. Hamazortzi behar

dira ekipo bat egiteko eta askok behin edate batera helduta futbola ixten dabe. Askotan 15egaz hasi dogu denporaldia eta 11gaz amaitu juxtu-juxtuan" azaldu dau Nahikari Diaz de Rada hasierahasieratik dagoan jokalaria. Dana dala, badirudi taldea egonkortzen hasi dala eta azkenengo urteotan, askotan, "ekipo osoa mantentidu da".

Datorren denporaldiari begira aldaketa batzuk dagozala dino Naia Bilbao taldearen bigarren entrenatzaileak "Batzuek ixten dabe taldea kanpora doazalako ikastera edo beste arrazoi batzuegatik. Baina badagoz beste batzuk barriak Zornotza eta Galdakaoko taldeetatik datozenak". Eta azkenengo urteotan sortutako haur eta kimu taldeak, aurrera begirako itxaropena sortzean deutsee jokalariai "lortu dabe talde bat egitea eta hori guretzako be ona da, ze beti egon gara eskas jokalarien aldetik eta

Gure Ikastetxeak

Arratiako Herri Ikastetxeak 2 urtetik 18ra. Euskalduna, kalitatezkoa, herrikoa

Arratia BHI
Tel.: 94 673 62 37 Faxa: 94 673 62 37 Igozte

Ikastola Arratia HI
Tel.: 94 673 90 65 Faxa: 94 673 90 65 Artea

Zubialde HI
Tel.: 94 648 06 82 Faxa: 94 648 14 84 Zeberio

I. Zubizarreta HI
Tel.: 94 673 60 22 Faxa: 94 673 60 22 Igozte

Areatzako Herri Eskola
Tel.: 94 673 90 93 Faxa: 94 673 90 93 Areatza

Zeanuri HI
Tel.: 94 673 93 33 Faxa: 94 673 93 33 Zeanuri

J.B. Eguskiza Meabe HI
Tel.: 94 631 32 28 Faxa: 631 32 28 Lemoa

Ugarana HI
Tel.: 94 631 55 32 Faxa: 94 631 92 11 Dima

Haur hezkuntza, Lehen Hezkuntza, Derrigorreko Egarren Hezkuntza, Baxilegok, Hezkuntza zikloak

Zugaitik BEGITuten dogu
A.P.I. 495
www.inmobiliarialarrea.com

Lehendakari Agirre, 8 beheka
48140 Igozte

Tfnoa: 94 631 80 04

ellaURI HOTEL
Naturazko ospitalea

Landa Turismoa
Erpinak Zerbitzuak

Aitzusta 38, 48144 ZEANURI | +34 946 317 888 | ellauri.com

holan kanterea eukiko dogu. Arratian hori eskertzen da, ze beti da gatxago topetako Bilbo baten edo Leioa baten baino" dino Diaz de Radak. "Urte pilo baten gure taldea bakarrik egon da eta orain talde bi honeek sortu dira. Horrek adierazoten dau zeozer doala gorantza" dino Iruñe Caballerok itxaropentsu.

Arratia neska taldearen ki-muak

Neska nagusien taldearen isolamentuagaz amaituteko eta futboleant jokatu gura daben neskak non jokatu euki daien bermatzeko, haur taldea sortu zan Arratian orain dala urte bi. "Nesken futbolari ez jako bape be inportantziarik emoten. Gu saiatu gara taldeak egiten eta lortu dogu talde bi egitea. Orain dala urte bi hasi ginan eta lehenengo urtean sortu genduan talde bat eta igaz beste bat. Eta espero

dot oso giro ona dagoalako eta oso ondo pasetan dogulako". Talde bereko Miriam Martin ados dago "sano ondo pasetan da eta lagun piloa egiten dozuz" dino. Madariaga delegauak be haur taldeko neskak "lagun handiak egin dirala" dino.

Bentaja handiak daukaz, be-raz, futbolarri Arratiako neskentzat: emoitzak onak lortu eta jarraituteko gero eta posibilitate handiagoak eukiteaz ganera, ondo pasetan dabe eta lagunak egiten ditue futbolarriak.

Publikoari jagokonean, barriz, ez dira hain baikor agertuten beterranoenak "Bardin jarraituten dau danak. Betikoak etorten dira, gure gurasoak, lagun batzuk... baina danak gure ingurukoak. Beti gabiz zaletasuna bultzatu guran baina..." dino Iruñe Caballerok. Aitor Madariagak, barriz, gauzak aldatuten doa-



C.D. Arratia "Soberano" taldea.

dogu Arratiako neska guztiak jokatutea, danak!" dino Aitor Madariaga taldeko delegauak. Talde horreetan jokatuteko oraindino izena emon ahal da 657 795 383 telefonora deituta.

Eta neskak hasi barriak, Arratiako nesken tradizioari eutsiz, denporaldi ezin hobea egin dabe "Arratia taldea itxi dogu goi-goian. Infantilak egin dabe 6. ligan eta Kopa irabazi eben. Eta alebinak egin eben 2. ligan eta Athleticen Uria Memoriala irabazi. Txapelkunak izan ginan!" dino harro Madariaga delegauak.

Entrenatzaileak be badagoz. Azkenengo momentuko ezusterik ez badago, haurren entrenatzailea nagusien bigarren entrenatzailea dan Naia Bilbao izango da.

Jokatuten ondo pasa eta lagunak egin

Futboleant hamar urte daroezanak zein neskak hasi barriak danak bat datoz taldean oso giro ona sortzean dala eta oso ondo pasetan dabela jokatuten esatean. Nahikari Diaz de Rada 2000 urtean taldea sortu zanetik dago bertan "segiduten badogu hainbeste urtetan da gustetan jakulako futbola eta kirola orokorrean. Lagun talde bat, koadri-la bat gara".

Bat dator beragaz Maria Iruñe-ri 12 urtekoa "futboleant jokatuten

zala uste dau "lehen neskak joaten ziran mutilak ikustera eta orain mutilak datoz neskak ikustera" dino.

Baina nesken taldeak etorkizuna euki daien, danak egin behar dabe euren jokoa: jokalarriak emoitzak onak lortu, taldeak edade guztietan taldea bermatu eta publikoa joan daiten partidua ikusten eta interesa sortzeako hedabideak nesken partiduen ganeko informazio gehiago emon behar dabe. Izan be, Miriam Martin umearen berbetan medioak "matxistak" dira eta ez dabez bardin tratetan neska eta mutilen lorpenak "mutilenak medio guztietan agertuten dira, neskenak inon be ez. Emoten dau futbola ez dala mutilena baino" dino. Sasoi bateko pattarra legez.



Leire Orue.

arratiako instalazioak s.l.
Berokuntza - Iturgintza - Gasa
Aire tratze sistemak - Aire zurgitze zentralizatuak
Sistak kontrolatzeko arretak eta mantentze lanak

Igorre Industriak, Pab. 07
Tel. Fax 94 673 62 76
819 736 916
48140 Igorre Bizkaia

ASESORIA Gorbeialde
Juridikoa - Fiskala - Lanekoa - Kontularitza
Askatasun 28, 1B - 48143 Areatza
Tfnua. 94 673 92 93 Faxa. 94 673 92 82
E-posta: gorbeialde@gorbeialde.com

Tel. 94 631 30 00 • email: info@arrotz.com

ARA OTZ
Lanetan • Jarretan!

Parro. Ugarana 2 of. - ADAR Dena - Bilbo • www.arrotz.com

expert ARRATIA

E-posta: expertarratia@cordevi.com
Lehendakari Agirre, 15 Tel. 94 673 60 55
48140 IGORRE (BIZKAIA) Fax 94 631 52 89

OPEL

ibaigane, S. Coop. Ltda.

Estuñofos, 15
48330 LEYDA (Bizkaia)
Telfs. 631 33 30 - 631 31 31
Fax 631 36 15

JANDONIZ
nagusientzako etxea
residencia para mayores

Jandoniz, 2 - 48390 BEDIA Bizkaia - tel. 94 631 31 30 - www.jandoniz.com

HERRIKO BENTA

HERRINO PLAZA
48142 ARTEA (Bizkaia)
Tel. 94 631 72 56

inbiu
11.09.24

lipdub
euskera eguna

10:30 **Lip dub udaletxeko plazan**
13:00 **Pintxo jana**
15:00 **Herri bazkaria**
Lasarteko plazan
17:30 **Jokaldigaz erromeria**
AMEk antolatuta
21:00 **Txokolatea danontzat**

Logo of Euskera (Basque Language) at the bottom left, and logos of BFA DFB and IGORREKO UDALA at the bottom right.

ESKALADEA

Europa eta munduko txapelketan izan da Itziar Zabala

Erredakzioa

Europako Gazteen Kopa eta Munduko Gazteen Txapelketan parte hartu dau Itziar Zabala eskalataile dimoztarrak. Europako Kopan, lehenengoa Cindy Sararak frantziarra da. Zabala ez zan finaletara heldu, baina pozik agertu da egindako lanagaz.

Munduko txapelketan AEBkoa



Itziar Zabala.

izan zan garailea.

Abuztuaren 12tik 14ra Europako Gazteen Kopa jokatu zan Imst-en (Austria). Itziar Zabala ez zan finaletara heldu, baina pozik dago egin eban lanagaz. Bide bi egin behar izan ziran "pausu baten laban egin neban baina halanda be nahiko ondo geratu nintzan, eta bigarrenen ondo eskalau neban eta bidea topera disfrutau neban baina ez nintzan finaletara pasau" azaldu deutso eskalataileak BEGITURI.

Munduko txapelketea

Abuztuaren 25etik 28ra, barriz, Munduko Txapelketea izan zan. Hau be Imst-en (Austria) jokatu zan. Tarteko hamar egunak Suitzan entrenetan egin arren, Zabala ez zan pozik geratu txapelketa honetan egindakoagaz "munduko txapelketan ez neban bape gustura eskalau: lehenengo egunean dezentetxu, baina bigarrenen txarto" dino dimoztarrak.

Dana dala, giroa eta rokodromoak ezin hobekak dirala herrialde hareetan azpimarratu dau "rokodromoa itzela zan, ametsetakoa, eta herri hareetan dagoan eskaladeagazko fanatismoa ezin da inon be gehiago topau" dino Zabalak.

LASTO BOTATZE

"Tubi" k lortu eban Euskal Herriko txapela

Erredakzioa

Abuztuaren 15ean jokatu zan Etxalarren (Nafarroa) Euskal Herriko Lasto Botatze txapelketea eta Jose Martin Bustinza "Tubi" dimoztarrak lortu eban txapela 6,30m.ko markea

eginda. Bigarrenak, Lapazaran bizkaitarrak, 6 m.ko markea egin eban.

Eguraldi ona eta jente asko batu zan norgehiagokea ikusteko. Egin behar izan eban lana 12 eta 13 kilo arteko fardoa, sarde baten laguntzagaz, barra horizontal baten ganetik

pasetea zan. Lehian 6 kirolari egon ziran: nafar bat, arabar bi eta hiru bizkaitar. Arratiar bakarrak txapela eroan eban.

Euskal Herriko Lasto Altzatze Txapelketea Donostian

Uri lehenengoaren 3an Donostian jokatu da Euskal Herriko Lasto Altzatze txapelketea. Hamabost kirolari hartuko dabe parte bertan. "Tubi" da txapela lortzeako favoritoa eta igaz lortutako txapela mantendutena saiatuko da.

SEGA

Suitzak irabazi eban Europako Segatze Txapelketea

Erredakzioa

Euskaldunak ez eban podiumik lortu abuztuaren 20 eta 21ean Cerkljen (Eslovenia) jokatu da Europako Segatze Txapelketan. Bai gizon bai andrazkoetan Suitzak irabazi ziran irabazleak. Lehenengo euskalduna Joxe Gabirondo izan zan bosgarren eginez zazpi herrialde eta 100 segalari inguru batu zituan lehiaketa honetan.

Irati Astondoa zeanuriztarrak txapelketa honetan parte hartzean dauan hirugarren aldia da. "Euskaldunok ohituta gagoz behar luzeetara eta hangoa guztiz kontrakoa da. Urteak joan ahala asko

nabil hobetuten, denporea asko bajatu dot eta beste urte batzuk barru espero dot podiuma egin ahal izatea" dino segalariak.

Baseri giroko jai europarra

Europako txapelketan hiru proba egon ziran. Lehenengoa "record" deritxana, "arinena nor zan jakiteko"; bigarrena, txapelketea bera eta hirugarrena txapelketearen ostekoa. "Honetan, gizon bi traktore baten kontra neurtu ziran. Ostean, sari banaketean, aforia, jantza, trontza, aizkorea... eta guzti horregaz amaitu genduan bajea" azaldu deutso BEGITURI Irati Astondok.

ERRUGBIA

Hasi dira entrenetan

Ainhoa Duñabeitia

Arratiako Zekorrek Rugby taldeak ekin deutso denporaldi barriari eta San Txismeko rugby zelaian egiten dabez entrenamentuak astelehen, eguazten eta barikuetan nagusiak zein gazteak.

Aurten be, igazko talde kopuru bardina izango da. Gizonezko talde bi, kadeteak eta seniorrak; eta andrazko talde bat. Senior gizon taldea, Asier Basterretxea eta Gorka Argulen eskuetan dago aurtengo denporaldian, igazko moduan. Talde honetan, jokalaria gehiago dagoz aurten, igaz kadete ziran batzuk maila honetara pasau dira eta.

Kadeteai jagokonean, Jon Uriarte eta Aratz Diaz de Rada izango dira maila honetako entrenatzaileak. Nesken taldea, barriz, Iban Marmolejok eta Arkaitz Petralandak gidatuko dabe.

Partidu bi aurrendenporaldian

Seniorrak urri lehenengoan daukie aurrendenporaldiaren hasiera. Partidu bi jokatu dabe liga hasi baino lehenago. Lehena, Gemikaren aurka eta bigarrena, Baztaneko taldearen kontra. Partidu honeen ostean liga hasiko da.



Arratiko Zekorrek.

Elexalde
Meri eta Josetxu
Pinturak (kolore guztiak)
Egur babesleak
Suteak eta behe-suak
Garbiketa produktuak
Lehendakari Agneta, 31 bis - 48140 IGORRE (Bizkaia)
Tel: 94 673 62 34 • Fax: 94 673 72 38

indar
instalazio elektrikoak
Bildosola Industrialdea, pab. E 3-4
48142 ARTEA - BIZKAIA
t. 94 655 47 19
indars@indars.es • www.indars.es

Dia %
PEDRO
AUTOSERBITZU
Sabino Arana, 35 48.140 Igorre
Tel. 94 631 15 26

ZEKUTZE
JATEZEA
Sabino Arana, 34
48140 IGORRE - Bizkaia
zekutejatezea@hotmail.com
Tel: 94 631 52 83

AKETEGLA
GAY & LORA
IGORRE

Emilio Goitia banatzaile ofiziala
San Miguel
Ardoak Edariak
94 673 64 02 Industrialdea E-3 Pabeloa (Igorre)

Jose Luis Corbacho
pintura lanak
Sabino Arana, 3 - 3a
Igorre 48140 Bizkaia
Tel: 94-673-70-87
Fax: 609-79-40-54

ELEKTROARGI ELEKTRIZITATEA
Instalazio elektrikoak • Aberiak
Telekomunikazioak
Material elektrikoak
Juan de Ajujagerra 1 Behea 48330 Lemoa
Tfnua-Faxa 94 6312576 Mug. 647405115

ekin s.a.
CONSTRUCCIONES
LAN PUBLIKOAK
INDUSKETAK
GARRAIKAK
UR SAREAK
SANEAMENTU SAREAK
BASERI ETA BASOKO BIDEAK
PABELLOAK
URBANIZAZIOAK
Ituriztze barrera 8 - 48141 Dima (Bizkaia)
Tel: 94 631 72 57 Faxa: 94 673 95 25
e-posta: c.ekin@telefonica.net

MENDIA

Alex Txikon etxean



Alex Txikon.

blog-ean emondako informazioaren arabera, Txikon jarraituteko behar eban materiala ekarriko eben espedizionokideen zain egon zan. Zortzi mila metrotara berrogei ordu egin zituan. Atzerapen honengaitik eta haizea gogorrago jotzen hasi zalako, bueltea emotea ebatzi eban mendizaleak.

Abuztuaren 16ko gauean heldu zan Txikon Lemoara, ia hiru hilabete kanpoan eginda. Mendizaleak abentura honen balorazino positiboa egin dau, "hamabi mila km. hamazazpi egunetan egin genduzan, helburua bete genduan. Autoa han itxi genduan, Felix Baltistan alkartearentzat, horretarako eroan genduan eta. Mendian be lan polita egin dogu. Arantza txiki bat geratu jata, 8.000 m.tara igo eta gero, ezin izan nebalako ton-torra egin K2an".

Pakistanera furgonetan eta zortzimilako bi

Maiatzaren 26an abiatu zan Alex

Txikon Gernikatik Pakistanerantz Ernesto Ezpeleta "Bihurri", Xabier Erro, David Maeztu eta Eukeni Arriortua kamera igorretarragaz batera. Bidean aizkora desafioak erakutsi zituen. Behin Pakistanen, Txikon, Gösch, Rousseau eta beste mendizale batzuekazu batu eta G1 eta G2 mendiak igon zituan. Ostean, K2ri ekin eutsan eta 8.000 m.tara igon ostean bueltau zan Txikon.

Negurako proiektuak

Mendian lan "polita" egin arren (zortzimilako bi eta hirugarrenean 8.000 m.tara egon) bete ez dituan helburuak lortzeako saiakera barriak egingo ditu Lemoakoak. Holan, datorren urtailan Txikonek Pakistanera bueltetako asmoa dauka G1en bide barria zabalduko neguan, neguko lehenengo zeharkaldia izateko. K2ren tontorra egitea be bere planen artean dago.

BIZIKLETA MARTXEA

Iban Mayo martxea

Erredakzioa

Hilaren 18an izango da Iban Mayo Lagunarteak antolatutako Iban Mayo Martxa Zikloturista. Martxak Igorreko kiroldagian izango dau urteera goizeko 09:00etan eta ibilbidearen 111 kilometroak egin ostean kiroldagian bertan amaituko da proba.

Izena internet bidez emon daiteke hilaren 9ra arte edo egun berean kiroldagian 08:15ak arte. Internet bidez egin ezker, federauak 10 euro ordaindu beharko dabe eta ez federauak 22. Egunean bertan egin ezker, 15 eta 27 euro ordaindu beharko dabez hurrenez hurren. Alde honen arrazoia da ez federauak 12 euro pagau behar dabela eguneko aseguruia egiteko.

Erredakzioa

G1 eta G2ra igon eta K2n 8.000 m.tara 40 ordu egin ostean,

etxean da Alex Txikon mendizale lemoaztarra. Zortzimilako bi jarraian egin eta hirugarrena egiteko puntuan egon zan. Izan be, bere

MENDI BIZIKLETA MARTXEA

Ubideko III. Mendi Bizikleta Martxa

Erredakzioa

Amexier Mendi Elkarteak eta Ubideko Udalak III. Mendi Bizikleta Martxa antolatu dabe urri lehenengoaren 17rako. Urteera goizeko 09:30ean izango da herriko plazan eta probak 42 km. ditu. Ibilbidea aldapatsua da eta punturik garaiena 1.150 m.tan dago.

Izen emotea

Martxa honetan parte hartzeako izena emon daiteke <http://ubidekobttmartxa.blogspot.com/> helbidean edo egunean bertan mar-

txea hasi aurretik. Internet bidez egin ezker, urri lehenengoaren 14a baino lehen egin behar da eta 7 euro pagau behar dabe federauta dagozanak eta 10 euro federauta ez dagozanak.

Egunean bertan izena emoten dabenak apurtxu bat gehiago ordaindu beharko dabe: 10 euro federauak eta 13 federauta ez dagozanak.

Gehienez 200 partaide izango dira eta guztientzat horniketea, dutxa hartzeako aukerea eta oparia egongo dira. Zozketea be egongo da.



Ubideko mendi bizikleta martxarako izen emotea zabalik dago.

ERMITEN IBILALDIA

Zeanurin, oinez, ermitarik ermita

Urri lehenengoaren 11n izango da Ermiten XXIV. Mendi Martxea

Jon Urutzurtu

Aurtengoagaz hogeta laugarren urtea beteko dau 1988an jaio zan eta klasiko bihurtu dan oinezko martxa honek. Orduan antolatu eban lehenengo aldiz Joko Alai alkarteko mendi sailak eta, urtero, hutsik egin barik eutsi deusie zeanuriztarrak urteroko ziteari.

Helburuak hasierako berberak dira: domeka goiza natureagaz hartu-emonetan eta kirola egin ez pasetea, eta herritarrai zein

kanpotarrai Zeanuriko inguru zabalak eta ermiten ondarea ezagutzera emotea. Ez dira gitxi, izan be, herri honetan sakabanaturik dagozan ermita edota eleizak, guztira hogei.

Urteerea Ibarretako frontoian izango da, goizeko 07:30ean; ibilbide osoa egiten dabenak 35 bat kilometro beteko dabez eta hemeretzi ermita edota eleizaren ondotik pasauko dira, aurten be Egiriñako (Gorbeia) Edurretako Amarena kanpo geratuko da eta. Hain luzea egin gura ez dabe-

nak, beste bi ibilbideren artean aukeratu ahal izango dabe: bata, ibilbide ertaina, 23 kilometrokoa eta bestea, laburra, 13 kilometrokoa.

Amaitzerakoan, ibilbide luzea, zein ertaina, zein laburra bete eta gero, ziur ziteari erantzuteak merezi izango deusela ibiltariak, Zeanuriko ondare erlijiosoak ezagutzeaz ganera, uda udagoien bihurtzeaz dagoan sasoi honetan natureak azaltzen dauan koloreen sinfoniaz gozatzeko aukera ezin hobea eskeiniko deuselako Zeanuriko Ermiten XXIV. Mendiko Martxeak.

Martxeari buruzko zehetasunak

Izena emotea: Urri lehenengoaren 7a aurretik: 7 € sartuz BBK-ko kontu-zenbaki honetan: 2095 0335 29 3830586275. Egun berean: 06:45etik aurrera, herriko plazan: 10 €. Joko-Alaiko bazkideak: 3 €. 14 urtetik beherrakoak: debalde.

Urteerea: 07:30ean, Ibarreta frontoian.

Osasun-zaintzea, jan-edana eta kontrol puntuak egongo dira ibilbidean zehar.

Amaieran opari bana emongo jakie parte-hartzaileak.

Pelotalekuko dutxak zabalik egongo dira.

Laguntzaileak: Gorbeialde Landa Garapenerako Alkartea, Eroski-Bilbondo, Euskaltel, BBK, Norbega-Coca-Cola, Arratiako Gurutze Gorria, Txoko Sagarna eta Ellauri hotela.

Informazioa: Alberto: 653 706 269. Aitor Intxaurraga: 688 670 168. www.mendimartxak.creatufo.com.

IKASTAROAK

Urtxintxak matrikulazioa zabaldu dau

Erredakzioa

Urtxintxa eskolan, datorren ikasturterako balioetan hezteko ikastaroetan izena emoteko matrikulazioa epea zabalik dago urri lehenengoaren 1etik 30era. Bilboko Urtxintxa eskolakoen ustez, eurek eskeintzen daben euskerazko trebakuntza

"interesgarria izan daiteke Arratia, Ubide eta Zeberioko askorentzat".

Halaxe izan da behintzat orain arte. Izan be, eskola honetan astialdiko begirale eta zuzendarietako formakuntza emoten dabe eta gure eremuko begirale asko bertan formau dira. Zaztaparrak taldea, berbarako, eskola honetan sortu zan.

Eskeintzen dituen ikastaroen artean: Hezikidetzan Aditua, Kulturarteko Hezkuntzan Aditua, Jendarte Kultur Dinamizatzailea, Heziketa Premia Bereziak Astaldian eta Guraso Eskola. Azkenengo bi honeek aurtengo nobedadeak dira.

IRAKURLE KLUBA

Anjel Lertxundi Bedian

Erredakzioa

Anjel Lertxundi (Orio, 1948) hilaren 28an egongo da arrastiko 19:00etan Bediako liburutegian *Etxeko hautsa* liburuaren ganean berba egiteko bere irakurleakaz, Bediako Irakurle Klubak ekarrita.

Lertxundi idazle oparoa da eta literaturaren arlo guztiak landu ditu: eleberriak, ipuinak, itzulpenak eta saiakerak. Euskaltzain urgazlea be bada eta 2010ean Espainiako Literatura Sari Nazionala irabazi eban *Eskarmentuaren paperak* saiakereagaz.

Etxeko hautsa nobelea

Etxeko hautsa nobela honetan, Gorka Martiarena da narratzailea eta

istorioaren protagonista. Buruko gaixotasun batek jota dago Julian, Gorkaren aita eta aitari idaztea ezabaten dau semeak. Narrazioak ildo nagusi bi ditu: aita-semearen hartu-emonak eta semearen gaztetako giro politikoa. Narrazioaren zati handi bat bigarren personan dago idatzi eta Miguel Delibesen *Cinco horas con Mario* ekarten dau gogora.



Lertxundiren liburua.



Zeanuriko ermiten ibilaldian parte hartzaileak.

K Kendall Languages

28 urte zugaz!!

- 3 urtetik aurrerako umeentzat klaseak
- A, B eta C perfil linguistikoen lorpena Trinity College London eta Oxford Universityren azterketa ofizialak zentruan bertan eginaz
- Cambridge, EOI, First Certificate... azterketetarako prestaketea

Irakaslegoa oso prestatua dago eta gehienen ama hizkuntza ingelera da.

Kendall Languages, jentea prestatzen

- Enpresentzako kurso barriak
- On line zerbitzua
- Nagusientzako klaseak taldean
- Irakasgai guztientzako laguntza
- Atzerriko irakasleak

zatoz

Elexalde 4 behea
48.140 Igorre (Bizkaia)
94 657 73 48
www.kendall-languages.com

ERAKUSKETEAK

Ertibil erakusketa ibiltaria

Erredakzioa

Hilaren 1etik 14ra arte Igorreko Kultur Etxeko erakusketa aretoan, Ertibil Bizkaia 2011, Ikus Arteen erakusketa ibiltaria izango da. Erakusketa hau, Bizkaiko Foru Aldundiko Kultura Sailak aurkezten dau Sala de Exposiciones Rekalde sozietate publikoagaz eta Getxo, Bermeo, Lekeitio, Igorre, Larrabetzu, Santurtzi, Arrigorriaga, Ermua, Zalla eta Gemika-Lumoko udalakaz batera.

Erakusketea Bilbo, Algorta, Bermeo eta Lekeitiotik pasa ostean Igorren dago, "artista bizkaitar barrien sormen ekimenak bultzatu eta sustatzeko. Baita ikus-arteak Bizkaian sustatu eta hedatzeko be" adierazo dabe Foru Aldundiko iturriak.

INDUSKETEAK

Lemoatxen hildako gudari baten gorpuzkia errekupe rau dabe

Erredakzioa

Gerran edo gerra ostean ustez hildakoen gorpuzkiak topautakoan Aranzadiri jagoko ikertzea hildakoaren ahalik eta zehaztasun gehien jakiteko, Eusko Jaurlaritzak eta Aranzadik 2003. urtean egin eta urtero barriztutako akordio bateri esker. Bagilean Aranzadiko talde bat Lemoan ibili zan 1937an Lemoatxen hildako gudari baten hazurrak errekupe ratan.

"Aurtengo apirlean Lemoatxetik hur dagoan pinudi baten gorpuzki bat agertu zala jakin genduan. Hile horretan bertan, ikerketa bat egin genduan aurkikuntza egin zan lekuan: gor-

puzkia topau ebenakaz berba egin, erreferentziak hartu, argazkiak egin... eta txosten bat egin genduan. Bagilaren 11n, Aranzadiko arkeologoak, auzitegiko mediku bat, erradiologo bat eta boluntarioak osotutako talde batek indusketea egin eban eta gorpuzkia errekupe rau eben" azaldu deutso BEGITUri Aranzadi Zientzia Elkarteko Jimi Jimenezek.

Gorpuzkia Euzko Gudarosteko gudari batena zala dino ikerlariak. "Gizon gazte batena zan eta bere gauzakaitik badakigu gudaria zala. Hori jakiteko euskal gobernuaren ezkutudun garrikoaren belarria erabakigarria izan da. Honek Euzko Gudarostearen partaide moduan

identifiketan dau hildakoa. Momentuz ez dago jakiterik nor zan, askok galdu ebelako bizia momentu eta inguru horretan".

Hilobiak eta beste

Aranzadi Zientzia Elkartek me-

moria historikoa berreskuratzeko lanetan, ez dau bakarrik Gerra Zibileko deshobiraketak egiten, gerra eta gerra ostean desagertutakoak be bilatzen ditu, artxiboak arakatu, testigantzak grabatu eta beste lan asko.



Aranzadi alkartekoak Lemoan beharrean.

www.alkizabal.net
alkizabal@alkizabal.net
Zabalik 07:00 - 19:00

ALKIZABAL

Eraikuntzarako makineriaren salmenta eta alokairua

BOLUNBURU POLIGONOA
Amorebieta-Lemoa bidea
Tel. 94 631 44 06. Faxe. 94 631 20 26
48330 Lemoa (Bizkaia)



Banatzaille ofiziala

- Zuk behar duzuna daukagu, galdetu konpromiso gabe.
- Garraio zerbitzua.

Bizkaifisios SLk bi zentro ditu

Fisioterapia Zentroa Igorre

Elxalde 4
Telefonia 94 631 55 08

Andra Mari Klinikea

Fisioterapia Zentroa
Pontzi Zabala 1. Galdakao
Tel/faxe 94 457 23 64

www.bizkaifisios.com



GALANTA

Bametik janzteko
Zugandik sartu horrial

merkealdia

Lehendakari Agirre 23, Igorre
Telefonia: 94 631 90 08

bbk =

Ametzola Landetxea

Ametzola 1-1
48499 Zeberio
629 429 870
www.ametzola.net



RUGBY TABERNA

• Egin zaitez bazkide!
• 09:30etik zabalik
• Asteburretan pintxo bereziak



arratiko.zekorak@gmail.com
<http://santxisme.blogspot.com/>

AGENDA

**URRI LEHENENGOAK 1
IGORRE**

Hilaren 14a arte Ertibil erakusketea Kultur Etxeko erakusketa gelan.

LEMOA

Ludotekea eta liburutegiak ohiko ordutegia: 16:30etik 19:30era.

ZEBERIO

San Antolin jaia. Ikusi egitaraua 6. orrialdean.
Hilaren 23ra arte euskera ikastaroetan izena emateko epea udaltxean.

**URRI LEHENENGOAK 2
LEMOA**

San Antolin eguna Lemoak. Ikusi egitaraua 5. orrialdean.

DIMA

San Antolin jaia Oban.
19:00etan, "Diman etxean gura doguz" presoan aldeko konzentrazioa.

**URRI LEHENENGOAK 3
LEMOA**

22:00etan, Gaztebean ZIRKINIK BEZ taldea.

**URRI LEHENENGOAK 4
UBIDE**

Amexier Mendi Taldeak antolatuta, Arabako lautadaren osoko bigarren etapea.

**URRI LEHENENGOAK 5
BEDIA**

17:00etatik 20:00etara, hilaren 16ra arte, udalak eraturako ikastaroetan izena emotea liburutegian.

LEMOA

Hilaren 16ra arte, eskularen ikastaroan izena emateko epea zabalik. Kultura Zerbitzuan.

**URRI LEHENENGOAK 6
IGORRE**

19:30ean, batzarra Euskera Planeko Lip Duba prestatzeko.

**URRI LEHENENGOAK 8
ARTEA**

11:00etan herriko jaia hasten dira. Ikusi

**Anje Duhalde Zeberion hilaren 2an**

70eko hamarkadan hasi zan musika egiten Anje Duhalde. FUEGO taldean. Bateria jotzen hasi zan. Ostean Mixel Ducau lagunagaz batera lehen euskal rock taldea sortu eban; ERROBI talde mitikoa. Talde honetan abeslari eta gitarrajole ibili zan, rock progresiboa eta nazi-noarteko beste hainbat joera hurbilduz. Urteetan plaza askotan jo eta gero, ERROBI desegin zanean bakarlari bezala segidu eban.

1980. urtean *Errobiaren Hegitik* atera eban, bere bakarkako lanari hasierara emonaz.

Alkarlan asko egin dituan bakarlaria da Duhalde. AKELARRE taldeagaz, esaterako, lau urte ibili zan, erromeritik erromeriara. AKELARREren bi diskotan parte hartu eban, *Gau pasa* eta *Ari gara* izenekoetan.

Baina berberero alde horrek ez eutsan ukatzen bere bidetik segitzea eta *Erroz eta oroz* edota *Nahas-mahas* diskoak dira horren adibide. Beranduago, Xabier Amuriza bertsolariagaz egindako lanaren emoitzea plazaratu eban 1991n. *Xabier Amurizarekin kantari* diskoa txapelaren bertsoakaz osatua dago. Duhaldek gitara eta abotsa jarri eutsan eta musika bion artean eginga da. Horren ostean *Bakezaleak* (1992) atera eban, sano kritika onak jasoz, eta 1993an *Zuzenean* disko bikotxa. Harrezkero *Azkarate*, *Pinpirin* eta *Florian*, *George Brassens kantari* eta *Sorminetan* diskoak plazaratu ditu. Zeberion eukiko dogu bera entzuteko aukerea hilaren 2an gaueko 22:00etan.

egitaraua 6. orrialdean.

LEMOA

Andra Mari eguna Elizondan. Egitaraua 5. orrialdean.

URRI LEHENENGOAK 10**LEMOA**

13:00etan, Triki poteoa. 15:00etan, Bertso bazkaria. Bertsolariak: Jon Maia eta Igor Elortza. 18:00etan, Mariskal DJ-a.

URRI LEHENENGOAK 11**IGORRE**

10:00etan, Arratia Motor Taldeak antolatuta motor ibilaldia.

ZEANURI

07:30ean, ermiten XXIV Mendi Markea.

URRI LEHENENGOAK 13**LEMOA**

Udalak antolatutako informatika eta mekanografia ikastaroaren hasierara. Liburutegiko informatika gelan.

URRI LEHENENGOAK 14**ARTEA**

09:00etan, Mikel Deuna jubiladuen alkarteak antolatuta Zarautzera txangoa. Udaltxean.

URRI LEHENENGOAK 16**BEDIA**

Jubiladuen eguna. Leintz Gatzagara urteera.

URRI LEHENENGOAK 17**ARTEA**

10:00etan, MerkArtea. Ikusi egitaraua 6. orrialdean.

LEMOA

Ganzabal mendi Taldeak antolatuta, Arratiako mendiak eta herriak, 3. zeharkaldia.

UBIDE

09:30ean, Ubideko III. Mendi Bizikleta Markea. Urteera Ubideko plazatik.

URRI LEHENENGOAK 18**BEDIA**

11:00etan, Bediako 3. ibilbide zikloturistikoa.

IGORRE

09:00etan, Iban Mayo Markea zikloturistea kiroldegian.

LEMOA

Ganzabalen Oroitze Eguna Besaide (564 m).

URRI LEHENENGOAK 22**ARRATIA**

Auto bako eguna.

URRI LEHENENGOAK 23**LEMOA**

Ganzabalek antolatuta, 25a arte, Picos de Europa urteera. Pico Cortes (2370 m) Peña Vieja (2617 m).

URRI LEHENENGOAK 24**ARRATIA**

09:00etan, Arratiako ibaiertzetatik 2. markea. Bediatik Zeanurira. Urteera Bediako plazan.

IGORRE

INBIU 2011 jaialdia. Egitaraua 5. orrialdean.

ZEANURI

San Migel jaia Urben.

URRI LEHENENGOAK 28**BEDIA**

19:00etan, Anjel Lertundi egongo da liburutegian *Etxeko hautsa* liburuaran ganean berba egiteko.

LEMOA

19:00etan, Arianpeko kobazuloa: arkeologia indusketen inguruko beldak. Jubiladuen eteko 1. solairuan.

URRI LEHENENGOAK 29**ARTEA**

Mezea San Migel ermitan eta barauskaria.

IGORRE

San Migel jaia Garben. Ikusi egitaraua 5. orrialdean.

URRI LEHENENGOAK 30**BEDIA**

17:00etatik 20:00etara, tailera: Egunerokoa. Liburutegian.

DIMA

San Freskuak Indusin. Ikusi egitaraua 5. orrialdean.

IGORRE

19:00etan, Etxerat-ek antolatuta, presoan aldeko konzentrazioa.

URRI BIGARRENAK 1**ZEANURI**

San Migel jaia Altzutan.

IRAGARKI LABURRAK

**SALDU
SALTZEAN DOT**

Vespa Iris 200 motorra. BI-9307-BL 650€ren truke. Kapritxu bat. Deitu 645 006 293 telefonora.

SALTZEAN DOT

Autoa saltzean dot. Ford Focus, 1.8 Trend, 115 cv. Diesela. 39.000km. Arrisku orotariko aseguruagaz (2012ko zezeilera arte). 9.000€. Telefonoa 635 007 632.

SALTZEAN DOT

Mendiko bizikletea (BTT) saltzean da. 10-13 urterako. Gibi ibilbila. Prezioa: 60€. Interesdunak deitu 634 410 259 (Luis) telefonora.

ETXEA SALGAI

Areatzako Askatasuna kalean 125 m²ko pisu ederra salgai. Telefonoa: 646 448 869.

TXAKURRAK SALGAI

Maiatzean jaiotako 3 txakur kume salgai. Arrazea: Alemaniako artzain-txakur mestizoa. Ama pedigriduna eta aita mestizoa. Deitu 636 132 741 telefonora.

**LAN ESKEINTZA
ESTETIZISTEA BEHAR DA**

Igorreko zentro estetiko baterako estetizistea behar da. Interesdunak 635 704 739 telefonora deitu.

**DANERIK
APARTAMENTUA ALOKAIKIRUAN**

Suancesen apartamentua alokairuan. Asteburu, astebarru zein edozelan alokatzeko. 4 personentzako. Apartamentu barria. Telefonoa 677 497 985.

Zeozer saldu, erosi, alokatu, trukea egin edo behar edo behargin bila bazagoz, bidali asko jota 25 berbako mezu bat begitu@topagunea.com-era. Mezuak doan dira.

Begitu-lagunen txokoa**Zenbaki honetako saridunak:**

1

Igorreko Udalak emondako Fasioren Mendea CD-DVD-Liburua.

Ganoraz Alkartea (Arratia)
Mari Tere Bilbao (Artea)



2

Igorreko Udalak emondako Gontzal Mendibilen CD bana.


Imanol Gartzia (Lemoa)
Iratxe Gondra (Igorre)



Zerturen argitalpenak jasoko dozuz, zozketetan sartuko zara. Ehun zenbaki eta ehundaka lagun.

DENPORA-PASA

IMAN OLATU




EZKERRETIK ESKOIERA

1.- Birritan, umeen berbetan, gozoki. Egunsentia. 2.- Ibide. Alfabetatzerako eta Euskalduntzerako Koordinakundea. 3.- Berba egiteari ibi. 4.- Boroa. Hilabete bat. 5.- Nekatzea adierazoteko interjekzioa. Bokala. Urrea. 6.- Adiskide. Bokala. 7.- Ezinean. 8.- Birritan, edatean egiten dan hotsa. Edabe bizia. 9.- Orio. Birritan, korotza.

GOITIK BEHERA

1.- Azagariaren hotsaren onomatopeia. Ofizinea. 2.- Errusiako ibaia. Erraz. 3.- Isiltzeko eskatzeko onomatopeia. Birritan, gilbera. 4.- Bokala. Aguantau. Oxigenoa. 5.- Umeen berbetan, sagarra, txaxa. Birritan, distirearen onomatopeia. 6.- Arratiako udalerria. Betekadea adierazoteko onomatopeia. 7.- Ezten-haga. Sodioa.



Topau lau bokal daukiezan andrazkoen zazpi izen.

A	R	K	U	L	O	S	A	T	I
A	S	O	I	A	R	T	Z	E	K
Z	O	R	I	O	K	E	A	R	A
A	R	R	A	K	I	B	E	L	O
G	D	O	R	O	E	A	H	I	N
O	A	R	E	L	U	S	A	J	A
T	X	A	I	K	A	I	S	G	P
A	R	Ñ	E	A	B	L	U	S	J
Z	E	R	E	G	N	E	R	O	A
I	H	I	F	E	M	A	A	R	O
Z	U	J	E	I	R	K	U	G	K
L	I	A	L	K	I	R	T	A	O
U	B	I	E	N	E	R	U	A	L
T	A	R	A	M	O	T	Z	E	A
E	R	R	E	L	A	N	A	T	E

AKI MI KO

Begitu



Recreativos Gubi S.L.
Angel Larrea
Zornotza Tlfnoa 649 86 95 36

Ordie
FOTOKOPIAK - PAPERDENDA
E. Agirre, 7.
48140 Igortze (Biskaiak) Tlfnoa: 94 622 64 78

Umeen moda 0-20 urte
• Babi • Ray • Aranda
• Akar • Guetsuiter • Arandiga
• Gaudole • Ieiz • Hassana
sein
LEHENDAKARI AGIRRE, 27 • 946 319 296
seinmoda@hotmail.com

GARANTXE Autoeskola
TEORIA EUSKARAZ ZEIN ERDARAZ
Balmusak: 41, A, BTE, B
Lehendakari Agirre 31
Tlfnoa: 94 673 71 32
48140 IGORTZE (BISKAIK)
garantxe@euskalnet.net

ARRATIA AUTOESKOLA
karmela euskaraz zein erdaraz
Garbe, 10 - 48140 Igortze (Biskaiak)
telefonoa 94 631 54 31 Faxa 94 673 70 83
e-posta: urroa@euskalnet.net

Beer & Edariak s.l.
HEINEKEN ★ SOLARES
Polig.Mendieta, n.º 3. 48530 LEMCIA, Euzkadi
Tel. 609 482 939 fax 609 296 727

ALKOHOLIKO ANONIMOAK
ARRATIAKO TALDEA
Arazoak alkoholagaz?
Arazoak badaukazuz,
lagundu ahal zaitugu

BIXER TABERNA
Beko kalea, 2 - Telf. 94 631 73 65 - VILLARO

axular
KULTUR ERAKUTSA
Agirre Lehendakaria 4 - 94 673 70 92
axularke@gmail.com

NAIARA Hertz Klinika
Lehendakari Agirre, 19
48140 Igortze
94 631 52 26

AKESOLO, S.A.
GARRAIOAK, NEUMATIKOAK ETA ZERBITZUAK
Garbe, 29 Telefonoa: 94 673 40 14 IGORTZE BIZKAIA

Igotte
BATEAZ EGUNAK: epaztasunak 20etatik 22etara
Udaltzarke arropetan EPA-ko lokalak
KONTAKTATZENO TELEFONOA: 690 139 044

INCOESA
Tel. 94 631 32 75
Faxa. 94 631 37 66
Bidekoetxe 18 48.390 Bedia

Bar Restaurante Montero
Eguneko menua
euskal sukaldaritza,
sukaldaritza bolibiarra
eta brasildarra
Zelaia 19 - Arantzazu - 619 903 653

PILAR RODAS

"Zeanurín harrera bikaina izan genduan rallykook"

Pilar Rodas Lehenengo Arratiako Rallyan hirugarren postua lortu eban gidariondoko da. Beragaz eta auto berean gidatzen dauan Txema Forondagaz egon da berbetan BEGITU.

Clara Luja Azpiri

Zeintzuk dira rally baten ezau-garriak?

Txema Foronda: Arratiako bezalako rallyak ez dira abiadura lehiaketak, puntu guztietan eroan behar dalako abiadura bardina. Garrantzitsua ez galtzea eta denporak ondo eroatea da.

**Zelango autoak erabilten do-
zuez rallyetarako?**

T.F.: Auto bi daukaguz, BMW bi: bata BMW 320 bat da eta bestea 83ko BMW 323a.

Noiz hasi zinién rallyetan?

Pilar Rodas: 2006. urtean hasi ginan, Bilbon, gure lagunartek antolatutako lehenengo Rallystonean. Ordutik aurrera rally askotan parte hartu dogu, batzuetan bitan hila-bete berean, baina orain lasaiago gagoz. Parte hartzeaz aparte, rally batzuk antolatu doguz.

Beste rallyrik irabazi dozue?

P.R.: Bai, rally dezente irabazi doguz. Igaz, Gazteizgo Eko-rallya irabazi genduan, munduko energia barritzagarrien lehiaketan puntuetan dauan karrera eta Frantzian be rally bi irabazi doguz, Baionan, besteak beste. Ni neu Kantauriko

andrazkoen *Villas y valles* rallyaren txapelduna izan nintzan. Kopa pilo bat daukat etxean.

Zein da gidariondoko baten lana rally baten?

P.R.: Gidariondokoak denporea eta distantziak kontrolatu behar ditu. Autoa abiadura bardinean joan behar danez batzuetan gidaria frenatu behar izaten dau eta beste batzuetan azkarrago joateko esan. Nabigazioa be sano garrantzitsua da. Arratiako rallyak, adibidez, 300 kilometrotan 400 bide desbardin hartzeako posibilitatea eukan. Gidariondokoaren lana da beti behar dan bidea hartzea eta ez galtzea. Ez da lan erreza.

T. F.: Gidariondokoaren lana hobeto egiten dabe andrak, errazago konzentretan diralako.

Andra asko zagoze rallyetan?

P.R.: Ez, asko ez, baina gagozanak danok ezagutzen dogu alkar. Gitxi gorabehera, 50 autotan andrak bost gidariondoko eta gidari bi gara. Oso giro ona dago rallyzaleen artean, eta ez dago norgehiagoka handirik, argirik ez behintzat. Danok ezagutzen dogu alkar eta rallyaren ostean bazkari handi bat egiten dogu eta oso ondo pasetan dogu.

"Gidariondokoaren lana denporea eta distantziak kontroletea da. Eta nabigazioa, bidean ez galtzeako"



Arratian parrilladea egin genduan eta asko disfrutatu genduan.

Zer dala eta parte hartu zenuen Arratiako rallyan?

T.F.: Gure auto taldekoak berba egin eben rallyari buruz eta duda egin barik apuntatu ginan.

Egon da desbardintasunik Arratiako eta beste rallyen artean?

P.R.: Ba, batez be, han egin euskuen harrera bikaina. Rally asko antolatu doguz, baina Zeanurín izan dogun bezain tratatu ona ez dogu inon izan. Han jente asko dago lagunduten eta parte hartzean eta danak gogo handiz. Batzuetan, rallyak bizilagunentzat desatseginak izaten dira, auto asko diralako bide estuetan eta zarata handia egiten

dabelako, baina Arratiako oso ondo antolatuta egoan eta hori ez zan gertatu.

Gustura egon zinién Arratian, orduan?

T.F.: Bai, sano gustura. Antolatzaileak lortu dabe rally dibertigarri eta konplexu bat egitea, jentea molestatu ez zan kejarik egon. Alderantziz, publiko asko egon zan rallya ikusten.

Pasadizoren bat Arratiako rallyaren ganean?

P.R.: Ba bai, badago gauza xeble bat. Rallyaren zati bat San Kristobalgo ermitatik hurbil pasatu zan, eta ni han bertan ezkondu nintzan orain dala urte asko. Auto asko galdu ziran alde horretan, baina gu ez.

Bizkaiko Urtxintza Eskola
ASTIALDI ETA SUSPERTZE SOZIOKULTURALEKO
IKASTARROAK
Tel: 94 432 04 45

Matrikulazioa irailaren 1etik 30era
TITULAZIO OFIZIALAK eta gehiago

- Astialdiko Begiralea • Astialdiko Zuzendaria •
- Jendarte Kultur Dinamizatzailea
- Hezkidetzan Aditua • Kulturarteko Hezkuntzan Aditua • Heziketa Premia Bereziak Astialdian •
- Guraso Eskola + IKASTARO LABURRAK

www.urtxintzaeskola.org

aek-k

hitza ematen dizu

euskara ikasi eta euskaraz jakingo duzu

eman izena

Arratiako AEK

Agirre Lehendakaria 4
Igorre
94 631 56 57

www.aek.org Gorria ikazteko para entenderlo para se compendio